

1215/97 Errege Dekretura egokitzeko Eskuliburua



**SEGURTASUNA ERAIKUNTZAKO
EKIPOETAN**

**1215/97 Errege Dekretura
egokitzeko Eskuliburua**

Dokumentazioaren jatorria

Eskuliburua hau honako argitalpenetan oinarrituta dago: "Utilisation et conformité del engins mobiles et des appareils de levage", "Mise en conformité des machines du gros œuvre et paysage" eta "Mise en conformité des machines á metaux aluminium", Organisme Professionnel de Prevention du Bâtiment et des Travaux Publics (OPPBTP) erakundeak egindakoak, eta eraikuntzako ekipoa 1215/1997 Errege Dekretura egokitzeko Gidaliburuan, Osalanek egindakoa.

Eskuliburua honek OPPBTP erakundearen eta MAPFRE fundazioaren artean eta honen eta OSALAN eta CONFEBASKen artean sinatutako akordioen baldintzapean argitaratzen da.

OPPBTP erakundeak lagatako dokumentazioa Estatuko legeetara egokitzen eta aipatu dokumentazioa fitxa berri ugariarekin osatzen aritu den lantaldea kide hauez osatuta dago:

Fernando Bastida Yarza
José Miguel Elejaga
Josep Torradeflot
Álvaro Cohedo
M^a José San Martín
Javier Tuñón
Xabier Telletxea
Cosme Luzarraga Ocerin
Daniel Pérez Ruiz
Vicente Prieto Tomás
Antón Aguirre
Santiago Regueira
Iñaki Benito Imaz
Lorenzo Arteaga
Begoña Trío
Jesús Jaime Ruiz Antón
Ramón Carreira Vigo-
Ricardo Maguregui Vigo

Altuna y Uría
Alba, S.A.
Ausa
Ausa
Construcciones Brues
Construcciones Brues
Construcciones Moyua
Const. y gestión de servicios
Dragados
Dyctel
Dragados
Fomento de Construcciones y Contratas
Fundacion MAPFRE
Iza, obras y prom.
Lanbide empresa constructora
Necso
Alcansa
Alcansa

OSALAN

Vicente Camarero
Jaime Casla
Javier Puente

Arabako LZ
Gipuzkoako LZ
Bizkaiko LZ

© 2004, OSALAN
© 2004, CONFEBASK
© 2004, Fundación MAPFRE

Ale kopurua: 500 ale

Internet: www.osalan.net

Argitaratzailea: OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Erakundea.
Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Autonomiaduna.

Fotokonposizioa: Forumprint S.L. (Donostia)

Inprimatzailea: Gertu Komunikazio Bide S.L. (Oñati)

I.S.B.N.: 84-95859-22-X

D.L.: SS-212/04

Ignacio Murguía Mañasen aitzinsolasa	XI
Román Knörr Borrásen aurkezpena	XIII
Hitzaurrea	3

I ATALA

1215/97 ERREGE DEKRETUAREN ERANSKINA.

LAN EKIPOEI EZAR DAKIZKIEKEEN GUTXIENeko XEDAPENAK

I.1. Lan ekipoei ezar dakizkiekeen gutxieneko xedapenak	11
1. Eragingailuak	11
2. Martxan jartzea	13
3. Geldialdia	14
4. Objektuak erortzea eta jaurtitzea	17
5. Gasak, lurrinak, likidoak edo hautsak jaulkitzearen arriskua	18
6. Heldu eta egoteko baldintzak	18
7. Leherketak, hausturak	18
8. Elementu mugikorak	19
9. Argiztapena	23
10. Azal beroak edo oso hotzak	24
11. Alarmagailuak	25
12. Energia-iturrien bereizketa	25
13. Seinaleztapena eta ohartarazpena	28
14. Sutea	29
15. Eztanda	29
16. Elektrizitate-arriskua	30
17. Zarata, bibrazioak eta erradiazioak	31
18. Likido korrosiboak edo goi-tenperaturazkoak	31
19. Esku-erremintak	31
I.2. Lan-ekipo zehatzei ezar dakizkiekeen gutxieneko xedapenak	32
1. Automotoreak izan ala ez, lan-ekipoei ezar dakizkiekeen gutxieneko xedapenak:	
a) Arriskuak lekualdaketan	32
b) Energia transmititzeko elementuen blokeoa	32
c) Energia transmititzeko elementuen ezarpena	32
d) Iraultzeko eta objektuak erortzeko arriskua	33
e) Eskorga jasotzaileak	35
f) 1. Abiraztea	35
f) 2. Errailen gaineko ekipoak	35
f) 3. Frenaketa	36
f) 4. Gidariaren ikusgarritasuna	36
f) 5. Argiztapen artifiziala	36

f) 6. Segurtasuna: Sutea	36
f) 7. Urrutitik zuzenduriko ekipoak (geldialdi automatikoa)	37
f) 8. Urrutitik gidaturiko ekipoak (babesgailuak)	37
g) Soinu-seinaleztapena	37
2. Kargak jasotzeko ekipoei ezar dakizkiekeen gutxieneko xedapenak:	
a) Egonkortasuna	37
b) Jasotzeko ahalmena	37
c) Karga-mugimenduak	38
d) Langileen jasotze eta desplazamendua	39

II. ATALA

ERAIKUNTZAREN ARLOKO LAN EKIPOEI EZAR DAKIZKIEKEEN LEGE-ESKAKIZUNAK BETETZEN DIREN EGIAZTATZEA

II.1. Makinei ezar dakizkiekeen xedapenak	43
II.2. Ekipoak 1215/97 EDarekin bat datozela egiaztatzek fitxak betetzea	45
II.3. Eraikuntza-makineria, lan-ekipoei buruzko 1215/97 EDaren I Eranskinarekin bat datorren egiaztatzeko gomendio-fitxak	46
II.4. Eraikuntza arloko lan-ekipoetarako gomendioak ematen dituzten fitxen zerrenda, formatu askean eranstean dira	46

III. ATALA

II. ERANSKINA. LAN EKIPOEN ERABILPENARI BURUZKO XEDAPENAK

III.1. Lan-ekipoak erabiltzeko baldintza orokorrak	51
1. Instalakuntza	51
2. Heldu eta egoteko modua	52
3. Erabiltzeko baldintza baimenduak	52
4. Abiarazteko baldintzak	53
5. Hel daitezkeen elementu arriskutsuak	53
6. Hondakinak kentzea	54
7. Egonkortasuna	54
8. Gehiegizko kargak eta presioak	54
9. Proiekzio edo erradiazio arriskutsuak	54
10. Eskuz gidatutako ekipoak	55
11. Giro-baldintza arriskutsuak	55
12. Tximistak	55
13. Muntaia eta desmuntaketa	55
14. Mantentzea eta konpontzea	56
15. Mantentze egunkaria	56
16. Martxan ez dauden ekipoak	56
17. Eskuzko tresnak	57
III.2. Lan-ekipo mugikorak, automotoreak izan ala ez, erabiltzeko baldintzak	58
1. Gidariantzako prestakuntza berezia	58
2. Zirkulazio-bideak	58

3. Eraginpeko pertsonak	59
4. Langileen presentzia makinen gainean	60
5. Mugapenak errekuntzako motoreen kasuan	60
III.3. Kargak jasotzeko lan-ekipoen erabilpenerako baldintzak	61
1. Orokortasunak	61
a) Egonkortasuna	61
b) Pertsonen jasotzea	61
c) Esekitako kargen desplazamendua	62
d) Jasotzeko osagarriak	63
e) Biltegiatzea	63
2. Gidatzen ez diren kargak jasotzeko lan-ekipoak	64
a) Interferentziak	64
b) Gidatzen ez diren kargen iraulketa	64
c) Ikusgarritasuna	65
d) Eraginpean dauden pertsonen segurtasuna	65
e) Ekipo batzuk aldi berean jasotzea	65
f) Arriskuak esekitako kargengatik	66
g) Metereologia-baldintza arriskutsuen kasuan hartu beharreko neurriak	67

IV. ATALA

LAN EKIPO BATZUK ERABILTZEKO ERANSKIN ESPEZIFIKOAK

Hormigoi-ponpa mugigarri eta gurpilduna	71
Ponpa urperagarri elektrikoa	72
Konprimagailu finkoa	73
Gasoliozko konprimagailu mugikorra	74
Zeramikazko materialaren ebakigailua	75
Errekuntzako motorea duen zoladura-ebakigailua	76
10 Kw baino gehiagoko multzo elektrogenoa	77
Hormigoi-makina	78
Hormigoia leuntzeko makina, oinez doan langilearekin	79
Zerra zirkular mugigarria	80

Eraikuntzako Ekipoen Segurtasunari buruzko Gidaliburu honen bidez lan-ekipoen baldintzak aztertzen laguntzeko tresna bat eskaini nahi izan zaie laneko arriskuen prebentzio arloan diharduten profesionalei, 1215/1997 Errege Dekretuan jasotako eskakizunak betetzeari dagokionez. Izan ere, aipatu Dekretuak abenduaren 5eko 95/65/EEE Zuzentarau bidez aldatutako azaroaren 30eko 89/655/EEE Zuzentaraia gure ordenamendu juridikora egokitu du. Aipatu Dekretuak 2002ko abenduaren 5a baino lehen ekipo mugikorrak bertan jasotakora egokitzeko betebeharra ezarri zuen, besteak beste.

Helburu berberarekin, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Euskal Erakundeak (OSALAN), Euskal Enpresarien Konfederakuntzarekin (CONFEBASK) elkarlanean, lantalde bat sortu zuen eta talde horrek fitxa-sorta handi bat gauzatu zuen eraikuntzaren eta herrilaren sektoreko makina ugariaren segurtasun-espezifikazioak azalduz.

Bestalde, kezka berberarekin, MAPFRE fundazioak elkarriketak izan zituen Frantziako Organisme Professionnel de Prevention du Bâtiment et des Travaux Publics (OPPBTP) erakundearekin, aski ezagunak diren haren segurtasuneko argitalpen teknikoak itzultzeko.

2003ko urtarrilaren 22an, ahaleginak bateratzeko asmoarekin, gidaliburu honen sorburu den lan-kidetza-akordioa sinatu zuten. Bertan jaso dira OSALANek eta CONFEBASKek burututako lanak, eta OPPBTP erakundearen argitalpenen edukiak, MAPFRE fundazioaren bitartez, hori guztia lehen aipatutako lantaldeak berrikusia eta egokitua.

Ikus daitekeenez, eskuartean duzun lanean lan-ekipoei ezar dakizkiekeen gutxieneko xedapen orokorrak eta ekipoak erabiltzeari buruzkoak jaso dira. Horrez gain, eraikuntzan gehien erabiltzen diren makinak eta ekipoak xedapen horiekin bat datozeela egiaztatzeko fitxen bilduma gaineratu zaio.

Gidaliburu honek ezbehar-kopurua gutxitzen eta lan-baldintzak hobetzen lagunduko duelakoan nago. Eskerrak eman nahi dizkiet CONFEBASKi eta MAPFREri eta lan hau egiten aritu diren profesionalen taldeari beren interes eta laguntzagatik.

Ignacio Murguía Mañas
OSALANeko Zuzendaria Nagusia

Confesbaskeko elkarteburu naizenez, atsegin handiz aurkezten dizuet ERAIKUNTZAKO EKIPOAK 1215/1997 ED-AN JASOTAKORA EGOKITZEKO GIDALIBURUA, laneko arriskuen prebentzioari loturiko argitalpenak elkarrekin egiteko xedearekin, ordezkatzeko dudan erakundeak, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak (OSALAN) eta MAPFRE fundazioak izenpetutako hitzarmenaren baitan. Ildo horretatik, eskuartean duzun gidaliburua hain garrantzitsua den alorrean zeresana izango duen ekimen berri eta interesgarria da.

Hitzarmen honi esker, informatzeaz, sentsibilizatzetik eta zabaltzeaz gain, batik bat tresnez hornitzen duten enpresetan prebentzio emaitza eraginkorrak lortu nahi dira.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet OSALANi eta MAPPREri erakutsi duten gogo handiarengatik, eta bereziki, euren denbora eta ahalegina emanez proiektu hau garatzen parte hartu duten enpresei, izan ere, laneko prebentzioa bereziki delikatu den alorraren baitan dago eta bai gizartea bai enpresariak asko kezkatzen ditu.

Román Knörr Borrás
Confesbaskeko elkarteburua

SEGURTASUNA ERAIKUNTZAKO EKIPOETAN

1215/97 Errege Dekretura
egokitzeko Eskuliburua

DEFINIZIOAK


Mugikortasunaren eta jasotzearen definizioak

- **Mugikortasuna**

Makina mugikorrak dira beren eginkizunak betetzeko desplazamendua behar dutenak (adibidez: motonibelagailua).

Desplazatzen diren makinak (adibidez: zerra zirkular erroberaduna) ez dira makina mugikortzat jotzen, izan ere, horiek erosotasunagatik bakarrik mugitzen dira.

Desplazamendu nozioa makinari berari aplikatzen zaio eta ez soilik bere elementuetako bakoitzari.




Hala ere, multzo konplexu baten barruan bere kabuz funtziona dezakeen makina zatia makina mugikortzat joko da baldin eta zati horrek bere lana egiteko langilea mugitzea beharrezkoa bada.

- **Jasotzea**

Aparatuak edo instalazioak, eta beren osagarriak, zeinetan gutxienez beren eginkizunetako bat zama bat lekuz aldatzea baita, lekuz aldatzerakoan zama hori modu esanguratsuan mailaz aldatuz, makinari modu iraunkorrean lotuta egon ba-

rik. Maila aldaketa ez da esanguratsutzat joko zama lurretik bereizteko justu beharrezkoa dena bada, eta ez bada aurreikusten zama-euskarriek huts eginez gero arriskurik sortuko dutenik. Jasotzeko aparatuak lan-ekipo mugikorrak izan daitezke ala ez.



Jasotzeko lan-ekipoen definizioan ez dira sartuko manten-tzio jarraituko ekipoak, hala nola bandak, arrabolak edo kateak dituzten zinta garraiatzaileak, baita aireko garraiatzaileak ere.

Lan-ekipoei buruzko definizioak

- **Jasotzeko osagarriak**

Makinaren zati ez diren osagai edo ekipamenduak, makina-ren eta zamaren artean edota zamaren gainean daudenak eta be-rau prentsatzea ahalbidetzen dutenak.

- **Erabil daitezkeen zamen gehienekoa**

Jasotzeko aparatu bidez gehienez ere mugi daitezkeen zama da, haren konfigurazio desberdinekin.

Erabil daitezkeen gehieneko zama fabrikatzaileak zehazten du eta makinan azaltzen da.

- **Zama izendatua**

Konbentzionalki definitutako baldintzetan ekipamendu mota batek altxatutako gehieneko jasotze zama da (helduera, altura, zamaren grabitate zentroaren posizioa, aparatu mota, jasotzea: adibidez, 3 metrotara garabi mugikor batentzat, urkilaren alde bertikalaren aurrealdetik 0,50 metrotara gurdi automotore batentzat). Horren bidez, jasotzeko balio duten lan-ekipoak bereiz daitezke eta horiek elkarren artean erkatzea ahalbidetzen du.

- **Zama kurbak**

Emandako konfigurazio batean izandako norainokoaren arabera jasotzeko aparatuetan erabil daitezkeen gehieneko zamak adierazten dituzten kurbak dira (adibidez: euskarri gainean edo gurpilen gainean).

- **Erabilera koefizientea**

Fabrikatzaileak ekipamendu baterako bermaturiko zamaren, jasotzeko osagarri edo makina baten, eta ekipoaren, osagarriaren edo makinaren gainean –hurrenez hurren- markatuta dagoen gehieneko erabilera-zamaren arteko erlazio aritmetikoa da.



- **Proba-koefizientea**

Jasotzeko ekipamendu, osagarri edo makinen proba estatiko edo dinamikoak egiteko erabilitako zamaren eta ekipamenduen, osagarrien edo makinen gainean –hurrenez hurren- markatuta dagoen gehieneko erabilera-zamaren arteko erlazio aritmetikoa da.

- **Gidaria**

Makina mugikor baten lekualdatzeaz arduratzen den operadore aditua da. Makinak gidaria eraman dezake, edo gidaria oinez joan daiteke makinari lagunduz, edo urrutiko managailua erabiliz (kableak, irratia, etab.).

- **Zama-diagrama**

Makinaren ahalmenaren arabera beronekin mugi daitezkeen gehieneko zamen balorea adierazten duen taula da.

- **Lan-ekipoak**

Elementu hauei lan-ekipo esaten zaie: makinak, jasogailuak, erremintak, materialak eta instalazioak.

- **Gidatutako zamak jasotzeko balio duten lan-ekipoak**

Zamari ibilbide bakarra komunikatzen dioten ekipamenduak dira, maiz berau gidari zorrotz edo bigunen bidez lekualdatzen dute; bi puntu finkok espazioan horren posizioa determinatzen dute (zama-jasogailua, ibilgailuen jasogailuak, garbiketa-plataforma gidatuak fatxada batetan zehar).

- **Gidatu gabeko zamak jasotzeko balio duten lan-ekipoak**

Ekipo mota honetan, oinarrizko mugimenduen osaketatik dator zamaren ibilbidea: jasotzekoa, translazioa, orientaziozkoa edo norabidezkoa.

Hona hemen kategoria horretan sartzen direnak: dorre-garabiak, polipastoak, zubi-garabiak, plataforma jasotzaile mugikorrak...

- **Zamak jasotzeko balio duten instalazio iraunkorreko lan-ekipoak**

Euskarri bereziak behar dituen instalazioa duten ekipoak dira. Euskarri horiek bideak, ainguraketak edota hormigoi-blokeak izan daitezke.

- **Proba dinamikoa**

Erabil daitezkeen gehieneko zama proba-koefiziente egokiaz biderkatuta, izan daitezkeen konfigurazio guztietan makina funtzionaraztean datzan proba da, makinaren jokabide dinamikoa kontuan izanik, berau eta segurtasun-elementuak behar bezala dabilzala ziurtatzeko.

- **Proba estatikoa**

Jasotzeko makina edo osagarria aztertu eta gehieneko erabilera-zama proba estatiko egokiaren koefizienteaz biderkatuta dagokion indarra aplikatzean datzan proba da. Zama kendu ondoren makina edo osagarria berriro aztertu kalterik eragin ez den ziurtatzeko.

- **Babesbideak**

Segurtasun-osagaiak esaten zaien babeslekuak eta babesgai-luak babesbidetzat jotzen dira, baita norbera babesteko ekipo edo produktuak ere.

- **Berria edo berritzat hartua**

“Berritzat” edo “egoera berrian” dagoela ulertzen da eta dagokion araudia aplikatuko zaio Europako Batasuneko estatu kide bakar batean ere erabilia izan ez den lan-ekipo orori.

- **Bigarren eskukoa**

Bigarren eskukotzat joko da “Europako Batasuneko estatu kideren baten barruan erabilia eta merkaturatua (salmenta, alokairua edo mailegua) izan den lan-ekipo edo babesbide oro”.

- **Operadorea**

Instalatzeaz, martxan jartzeaz, erregulatzeaz, mantentzeaz, garbitzeaz, konpontzeaz, makina bat garraiatzeaz eta abarrez arduratzen den pertsona da.

- **Eraginpeko pertsona**

Gorputz osoa edo zati bat gune arriskutsu batean daukan pertsona oro da.

- **Gune arriskutsua**

Makina baten barruan edo inguruan dagoen gune oro da, baldin eta pertsona bat bertan egoteak bere segurtasuna edo osasuna arriskuan jartzen badu.

I Atala

1215/97 Errege Dekretuaren I.
Eranskina.

Lan-ekipoei ezar dakizkiekeen
gutxieneko xedapenak

Jarraian adierazten diren xedapenak aplikatu ahal izango dira baldin eta lan-ekipoak dagokion neurriaren jomuga den arrisku mota berarekin badakar.

Errege Dekretu hau indarrean sartzen den egunean dagoeneko martxan dauden lan-ekipoak dagokienez, aipatu xedapenen aplikaziorako ez da beharrezkoa izango lan-ekipo berriei aplikatutako neurri berberak hartzea.

Laukian sartutako eta kolorezko atzealdean duten testuak 1215/97 testuari dagozkio, gainontzekoa aholkuak edo aipatu lege-testuari buruzko azalpenak dira.

1.1. LAN EKIPOEI EZAR DAKIZKIEKEEN GUTXIENEN XEDAPEN OROKORRAK

1. ERAGINGAILUAK

Operadoreak makina bati aginduak emateko, haren funtzionamendu-parametroak aldatzeko, martxa-moduak aukeratzeko edo, behar izanez gero, informazioa jasotzeko erabiltzen dituen elementu guztiak dira eragingailuak. Normalean sakagailuak, palankak, oinpekoak, selektoreak eta bolanteak izan ohi dira, baina egungo makina askotan teklatuak eta zenbakizko kontrola duten pantailak (CN) dira.

Lehenengo puntu horrek makina arrisku barik erabili ahal izateko eragingailuek izan beharreko ezaugarriak zehazten ditu. Erabilitako makinak direnean, ergonomia arauak errespetatuz ez da gailu horiek osorik aldatzea eskatzen, baizik eta soilik egoera arriskutsuak eragin ditzaketenak.

Printzipio hauek kontuan hartu beharrekoak dira, bereziki, aginte-mahaia bat osorik edo zati batean berregin beharra dagoenean.

a) Identifikazioa

Eragingailuak argi eta garbi identifikatu ahal izateko kolore eta piktograma normalizatuak erabili behar dira. Hortaz, eginkizuna argiro azaldu behar da. Gainera, aipatu adierazpen eta piktogramak ezabaezinezko moduan idatzita egon beharko dira.

Adibidez, hauek dira makina baten eginkizun nagusietarako aukeratutako koloreak:

- Martxan jartzea/tenkatzea ZURIA
- Geldituta/tentsiorik gabe BELTZA
- Larrialdiko geldialdia GORRIA
- Baldintza anormalak ezabatzea HORIA

Lantegi bereko makina guztietan, eginkizun berberetarako kolore berberak erabiltzea gomendatzen da.

Eginkizun intuitiboa duten eragingailu batzuk ez dira identifikatu beharrekoak; esate baterako ibilgailuaren bolantea edo oinpekoak.

Segurtasunean eragina duten lan-ekipo bateko eragingailuak erraz ikus-teko moduan eta argi eta garbi identifikatzeko moduan egon beharko dira, eta behar denean, seinale egokiak eraman behar dituzte.

Eragingailuak gune arriskutsuetatik kanpo egon beharko dute, beharrezkoa izan ezik, eragingailu jakin batzuek bezala, eta horiek manipulatzeko arrisku gehiagorik ez sortzeko moduan. Nahigabe manipulatzeko ez du arriskurik eragin behar.

Beharrezkoa izango balitz, gune arriskutsuan jenderik ez dagoela ziurtatu ahal izan beharko du ekipoaren operadoreak. Posible izango ez balitz, martxan jarri baino lehen automatikoki alerta-sistema bat jarri beharko litzateke, hala nola hots edo ikusizko ohartarazpen bat. Lan-ekipoa martxan jartzeagatik edo gelditzeagatik sortutako arriskuetatik azkar aldentzeko beharrezko denbora eta baliabideak eduki beharko ditu langileak.

Aginte-sistemak seguruak izan beharko dira eta aurreikusita dauden erabilera-baldintzetan izan daitezkeen hutsegiteak, nahasmenduak eta aurreikusteko modukoak diren betekizunak kontuan hartuta aukeratu beharko dira.

Eragingailu batek ez du eginkizun bat baino gehiago agindu beharko eta beti ere eginkizun berbera. Hala ere, CN duten makinak teklaturaren gainean, ezin da beti betekizun hori bete. Kasu horretan, bidalitako eginkizun desberdinak pantailan argi eta garbi idatzita egon beharko dira.

b) Posizionamendua


Eragingailuak erosoki taldekatuta egon behar dira lanpostuen inguruetan, operadoreak horiek erraz ikusteko moduan. Ahal den neurrian, gune arriskutsuetatik kanpo egon behar, manipulazioa arriskutsua izan ez dadin.

Nahigabeko ekintza arriskutsuak saihesteko xedearekin, eragingailu horiek prest eta babesturik egon behar dira, operadoreak, edo hirugarren batek, nahigabe akzionatzea saihesteko.

Arrisku hori saihesteko badira hainbat konponbide, esaterako sakagailu landatuak, babes kapota bat daukan oinpeko agintea, edota barra soil bat eragingailuaren aurrean jarria.

Makina zahar askok palanka moduko martxan jartzeko eragingailuak dituzte, nahi gabe ukituz gero bat-batean martxan jar daitezkeenak. Ahal denean, kolpeak saihesteko babesak edo erabiltzeko bi maniobra behar dituzten sistemak jarriko dira.

Neurri handitako makinei dagokienez, operadoreak ezin duenez bermatu gune arriskutsu irisgarri guztietan jenderik egongo ez dela, bertara sartzea kontrolatzeko baliabideak eduki beharko dituzte, hala nola babes mugikorrek katigamenduko gailuez edo katigamendu eta blokeoko gailuez hornituak, eta balidazio-gailu batez, ekintza baten ondoren instalazioa berriro martxan jartzea baimenduko edo eragingo duena.



Arrazoi teknikoengatik, gailu horiek ezin direnean jarri (produktuen irteera, biribilkaketa-gailuak, etab.), soinu-zuko edo argi-zuko seinale-dun gailu bat mugimendu arriskutsuak martxan jarri baino lehen aktibatu behar da. Gune arriskutsuetan, larrialdietan gelditzeko gailuak jarri behar dira, behar direnean erraz erabiltzeko.

2. MARTXAN JARTZEA

Makina bat martxan jartzeko operadoreari nahitako ekintza bat eskatzea prebentzioaren oinarri-zuko printzipio-etako bat da. Izan ere, printzipio horiek ez errespetatze-agatik istripu ugari izan dira, batez ere ez-beharrezko mozketak baten ondoren energia elikadura leheneratzen denean makina bat-batean martxan jartze-agatik.


Puntu honetan zehaztutako helburua lortzeko, hortaz, hori ez duten makinak "tentsiorik gabeko" gailu batez hornitu behar dira, energia elektriko-a denean, edo haren baliokideaz, bestelako energia-iturriak direnean. Horren ondorioz, bi posizio egonkor dituzten balbulak, etengailuak edo banatzaileak normalean kendu egiten dira eta sakagailuez ordezkatu. Aipatu sakagailuak elementu hauei loturik egon daitezke:

- Konmutadore auto-elikatu bati.
- Errele bati edo gailu elektroniko bati auto-elikatze funtzioa ziurtatuz.
- Etengailu edo katigamendu mekaniko bati, energia elikaduraren mozketak baten ondoren berrarmatzea behar duena (segur aski potentzia gutxi-zuko makinentzat konponbiderik errazena eta merkeena izango da).
- Energia pneumatiko-a edo hidrauliko-a denean, banatzaile monoegonkor bati.

Bi posizio egonkor (martxan/geldirik) dituen martxan jartze-

Lan-ekipo bat abian jartzeko ezinbestekoa izango da horretarako prestatuta dagoen eragingailu baten gainean nahitako ekintza bat egitea.

Gauza bera gertatuko da geldialdi baten ondoren ekipoa martxan jartzeko, geldialdiaren arrazoia zeinahi izanda ere, eta funtzionamendu-baldintzetan aldaketak garrantzitsu bat sartzeko (adibidez, abiadura, presioa, etab.). Salbuespen bi daude: ekipoa abian jartzeak edo aldatzeak eragindako langileei arriskurik ez sortzen ez dienean edo ziklo automatiko baten sekuentzia normalaren ondorio direnean.



ko gailu bat, operadoreak mantendutako ekintza duen martxan jartzeko gailu batez ordezkatu daiteke, ekintza horrek traba egiten ez badu behintzat.

Ekipo eramangarriek eskakizun hori betetzen dute ekintza mantendua martxan jartzeko gailu baten bidez eta geldialdi posizioan dagoen blokeo gailu baten bidez. Ia ezinezkoa da oso zaharrak diren makinak aldatzea. Hortaz, arriskutsuenen ordezkari (batez ere > 127 mm-ko diametroa duten tresnentzat eta egurra lantzeko zerra zirkularrentzat) makina berriak jartzea komeni da.

Ezgaraiko martxan jartzeetatik babestea komeni da, izan ere, operadoreen segurtasunean eta osasunean ondorioak izan ditzakete. Horiek horrela, egoera hauetan ezingo da makina martxan jarri:

- Babes bat ixteagatik.
- Operadoreak gailu batez estalitako gune batetik alde egiten duenean adibidez barrera inmaterial bat.
- Martxa-moduan dagoen selektore baten maniobragatik.
- Larrialdietan gelditzeko sakagailu baten desblokeoagatik.
- Babesgailu termiko bat berrarmatzeagatik, arriskurik ez izatea izan ezik, adibidez sukaldeko tresna txiki batzuek.

3. GELDIALDIA

a) Geldialdi orokorra


Lan-ekipo bakoitzak segurtasunezko baldintzetan erabat gelditu ahal izateko beharrezko eragingailuak eduki beharko ditu.

Lan-ekipo osoa baldintza seguruetan gelditzeko baliabideak operadoreen eskura jartzea da, makina halabeharrez martxan jarri ez dadin. Betekizun hori kontsignazioarekiko maila txikiagokoa izanda ere (ikus "Energia banaketa" izeneko atala), horrek

Lan-ekipo bakoitzak segurtasun-baldintzetan erabat gelditzeko eragingailu bat eduki beharko du.

Lanpostu bakoitzak eragingailu bat izango du dauden arriskuen arabera gelditu ahal izateko, edota lan-ekipo osoa, edo beronen zati bat bakarrik, aipatu ekipoa segurtasun egoeran gera dadin. Lan-ekipoa gelditzeko aginduak lehentasuna izango du martxan jartzeko aginduen gainean. Behin lan-ekipoa edo bere elementu arriskutsuak geldituta, dagozkion eragingailuen energia-hornidura geldituko da.

Geldialdi normaleko denboraren eta lan-ekipo batek dituen arriskuen ondorioz beharrezko izango balitz, aipatu ekipoa larrialdietan gelditzeko gailu bat izan beharko du.



berekin dakar eragileen gainean energia elikadura moztea.

Geldialdi orokorreko aginte eragilea ez dago diseinaturik gertatzekoa den arriskua ezabatzeko (kasu partikularretan izan ezik). Gelditzea lor dezakeen eragingailua mota hauetakoa izan daiteke:

- Sakagailua, potentzia-kontaktadore baten gainean edo banatzaile hidrauliko edo pneumatiko baten gainean jardunez.
- Kontaktore-disjuntore baten etengailua.
- Gelditzeko oinpekoa.

Gelditzeko aginduak lehentasuna izan behar du martxan jartzeko aginduen gainean.

b) Geldialdia lanpostuan

Dauden arriskuen arabera lanpostu bakoitzak edo lan-ekipo zati bakoitzak berau gelditzea ahalbidetzen duen zerbitzu-organo bat izan behar du, lan-ekipo osoa izan ala bakarrik zati bat izan, operadorea seguru egon dadin.

Lan-ekipo bat gelditzeko aginduak lehentasuna izan behar du hori martxan jartzeko aginduen gainean. Lan-ekipo bat edo bere elementuak gelditu direnean, eragingailuen energia elikadura geldirik egon behar da.

Atal honetako lehen lerroa makina konplexuei eta hainbat lanpostu edo eskuhartze daukatenei baino ez zaie aplikatuko. Kasu honetan sartzen dira bereziki hainbat eragiketa automatikoki kateatzen direneko produkzioko, egokitze, edo biltegi-ratzeko multzo automatizatuak.

Gelditze funtzio horren bitartez istripurik izanez gero edo ekintza zehatz bat egiteko gune arriskutsu batean aritu behar denean, operadoreak makina gelditu ahal izango du.

Operadoreek lanpostu bakoitzean gelditze funtzio hori erabili ahal izateko eragingailu bat izan behar dute, zati arriskutsu irisgarritara bakarrik mugaturik egon daitekeena. Ez da beharrezkoa lanpostuaren gelditze funtzioak elementu mugikor arriskutsuen dezelerazio optimorik eragitea, horixe baita larrialdietako gelditze funtziotik bereizten duena.

Aginte-organoa sakagailu soilak izan daiteke, baina baita elementu sentikor bat ere (kablea, barra, oinpekoa...), ekintza azkarragoa izan dadin. Eskuhartzeak maiz egiten diren kasuetan, lanpostuan bi posizio egonkor dituen etengailu bat jarri ahal izango da, ahal den heinean potentzia-zirkuituan eraginez, operadorea arriskurik gabe aritu ahal izateko.

Arau horrek haxe exijitzen du:

- Gelditzeko aginduek lehentasuna dutela martxan jartze-koen gainean. Exijentzia hori geldialdi orokorreko funtzioari ere aplikatuko zaio.
- Eragingailuen gaineko energiak etetea. Aipatu exigentzia ez da betebeharrekoa izango lanpostuko geldialdirako kasu hauetan:

* Elementuak posizioan mantentzeko energia egotea beharrezkoa denean, hala nola robotikan.

- * Geldialdia elementu mugikorrek mekanikoki bananduz lortzen denean, hala nola enbrage/balaztaz hornitutako prentsak.

Geldialdi orokorreko funtzioari, ordea, mugarik gabe aplikatzen zaio exijentzia hori. Gelditzeko aginduari martxan jartzeko aginduari baino lehentasun handiagoa eman behar zaio.

Makina mugikorrek eta automatikoak ez diren edo erdiautomatikoak diren jasotzeko makinak berez atal eragileez hornituta daude eta horien bidez makina edo ekipoa lanpostutik geldiarazi daiteke.

Eragingailuen energia-hornidura etetea ez zaio aplikatzen makina mugikorrei, baldin eta segurtasun-arrazoiengatik horietan energia hidraulikoa mantentzea nahitaezkoa bada.

c) Larrialdietako geldialdia

Makina bakoitzak larrialdietako geldialdiko gailu bat edo batzuk eduki behar ditu, erraz identifika eta erabil daitezkeenak, eta egoera arriskutsua edo arriskuak saihesteko behar bezainbeste. Betebehar horretatik kanpo daude:

- a) Larrialdietako gailuak arriskua gutxitu ezin duenean, edo geldialdi arrunta lortzeko denbora ez lukeelako laburtuko, edo arrisku horretarako beharrezko neurri bereziak hartzeko aukera emango ez lukeelako.
- b) Makina eramangarriak eta eskuz gidatutako makinak.

Larrialdietan gelditzeko gailuari esker makina ahalik eta baldintza onenetan geldi daiteke, elementu mugikorren dezelerazio hoberenaren bitartez:

- Eragingailuen elikadura berehala geldituz.
- Geldialdi kontrolatuaz: eragingailuak elikaturik gelditzen dira, makina gelditu ahal izateko eta geldituta dagoenean elikadura gelditu ahal izateko (batez ere bariadoreak dituzten motorrei aplikatzen zaie).
- Larrialdietan gelditzeko funtzio hori lor dezakeen atal eragilea (seta-sakagailua, kablea, barra, oinpekoa) gorria izan behar da eta ahal bada atzealdea horiaren gainean.

Zerbitzuan dauden makinak direnez, larrialdietan gelditzeko gailu bat jartzeak zentzua izango du bakarrik gelditzeko denbora geldialdi arruntarekin lortutakoaren aldean oso txikia denean, eta hortaz, balaztatze eraginkorra behar du.

Askotan, arrazoi teknikoengatik, zaila edo ia ezinezko izaten da aipatu balaztagailua zerbitzuan dauden makinetara egoitzea. Aipatu araua ez da baldintza horietan aplikatzen.

Makinen traslazioari dagokionean, oso desplazamendu geldoa duten ekipo mugikorrek gailu horietaz horniturik egon daitezke, haien inertzia baxua kontuan izanik. Beste makinak, ostera, balaztaketa sistemaz baliatzen dira. Kasu horretan, traslazio mugimendua operadorean kontrolpean geratu behar da. Larrialdietako geldialdia bigarren mailako zenbait funtzioarako baliagarria izan daiteke.

4. OBJEKTUAK JAUSTEA ETA JAURTITZEA

Aurreko atalean bezala, atal honetan makina batetik objektuak jaustea edo botatzea eragin ditzakeen arrisku mekanikoen prebentzioa dugu hizpide. Hauexek dira kontuan izan beharrekoak:

- Batetik, makinaren ohiko jarduerarekin zerikusia duten objektuak jaustea edo botatzea (txirbilak, soldadura-produktu goriak, hozgarriak, partikula urratzaileak).
- Bestetik, istripuz bota edo jausi daitezkeen objektuak (erreminta-zatiak, mandrino-baraila mugikorak, kontrapisuak, orekatze-elementuak).

Operadoreez gain, prebentzio-neurriak arriskuen eraginpean egon daitezkeen hirugarrenak ere babesteko dira. Hona hemen neurri horiek:

- Makinak babes finkoez edo mugikorrez hornitzea, objektu edo partikula horiek atxiki ahal izateko, produktibitate-galera ahalik eta txikiena izanik.
- Ahal den neurrian, saihestea mugimenduan dauden objektu edo gauzen ibilbidean jendea iraunkorki egotea.
- Jendea leku arriskutsuetatik ibiltzea saihesteko barandak edo beste edozein baliabide jartzea.

Atal hau gidaria jaurtiketen aurka babesteari buruzkoa da. Aipatu jaurtiketak (lurra, harriak, burdinak) ager daitezke esate baterako hormigoia apurtzen denean, eraipen-zizailetan, eta abarretan, eta baliteke saretez babesturiko kabinak behar izatea.

Era beran, horiek mugimendu-abiadura jakin batetik aurrera sor litezke (lokatza eta harriak), eta baliteke lohi-babesa behar izatea.

Objektuak erortzeko edo jaurtitzeko arriskua daukan lan-ekipo orok aipatu arriskuez babesteko gailuak eduki beharko ditu.

5. GASAK, BAPOREAK, LIKIDOAK EDO HAUTSAK JAULKITZEAREN ARRISKUA

Gas, bapore edo likidoak jariatzeagatik edo hautsak jauritzeagatik arriskua dakarten lan-ekipo guztiak dago-kion iturri emisoretik hurbil horiek biltzeko edo erauzteko gailu egokiak eduki behar dituzte.

Arrisku-ebaluazioaren emaitzaren arabera mota horretako arriskuez babesteko neurriak hartzeko premia argi ikusten bada, neurri hauetako bat hartzea beharrezkoa izan daiteke: biltzeko, erauzteko, aireztatze, lana antolatze eta norbera babesteko sistemak.

6. HELDU ETA EGOTEKO BALDINTZAK

Langileen seguritate edo osasunerako beharrezkoa izatekotan, lan-ekipoak eta bere elementuak egonkortu beharko lirateke, finkatuz edo beste baliabideen bidez. Lan-ekipoek, aurreikusitako moduan erabiltzeko langileek gainean kokatu behar badute, baliabide egokiak behar izango dituzte bermatzeko ekipo horietara heltzea eta bertan egotea, langileen seguritate eta osasunerako arriskutsuak ez direla. Beraziki, 2 metro baino gehiagoko altueratik erortzeko arriskua dagoenean, gutxienez 90 zentimetroko altuera duten baranda zurrunk edo babes baliokidea ematen duen bestelako sistema izan beharko dute.


Lan-ekipoen egonkortasunak bermatuta egon beharko luke, horretarako lurrean finkatu direlako. Bere diseinu eta erabilpenean egonkortasuna ez bada kontutan izan, edo bere egonkortasuna arriskuan jartzen duen kokapen batean jarrita baldin badago, esaterako, meteorologia egoera latzengatik, bermatzeko neurri osagarriak hartu beharko lirateke. Haize gogorrek erraz erasotzen dituzten aldamioen kasuan, adibidez, amarradura osagarriak, pantailak e.a. bezalako neurriak ezarri behar dira.

7. LEHERKETAK, HAUSTURAK

Lan-ekipo baten elementuak lehertu edo hausteko arriskua dagoenean, eta langileen seguritate edo osasuna eragin ahal baldin baditu, babes-neurri egokiak hartu beharko dira.

Puntu honetan aztertzen diren lan-ekipo baten elementuen kasuan, ez dira kontrolatzen fabrikazio- edo erabilpen-ezaugarri guztiak eta, ondorioz, hausteko edo lehertzeko arriskua egon daiteke, ondokoak gertatu badira:

- Erabilpenerako ohiko ahaleginak (indar zentrifugoa, presioa...).
- Ohiz kanpoko ahaleginak, baina normalean aurreikusten direnak (talka, ariete-kolpea...).
- Materialen zaharkitzea..



Bereziki hauek aipatzen dituzte: zorroztarriak, zenbait tresna birakari, karburuzko plaketak bezalako elementuak daramatzaten lan-organoak, esaterako, malgu hidraulikoak edo pneumatikoak, askotan eskatutakoak. Prebentzioa makinak behar bezalako erresistentzia duten babesez hornitzea da.

Hala ere, prebentzio-bide horrek bere mugak ditu, lehiakortasunaren ikuspuntutik eta, beste ezer baino lehen, betekizun hauek izango ditu:

- Ekipo hauek erabiltzeko baldintzak errespetatzea, egileek aurreikusi dituzten moduan.
- Mantenimendu egokia egitea, bereziki babesle eraginkorrrak jartzea posible ez denean.

8. ELEMENTU MUGIKORRAK

Puntu honen helburua, izaera mekanikoa duten arriskuak ezabatzea da. Arrisku hauen jatorria, ekoizpen- eta mantenimendu- edo doikuntza-aldian, elementu mugikorretara heltzeko bidea da. Dena den, elementu mugikorrak bi motatakoak izan daitezke:

- Transmisio-elementu mugikorrak: ardatzak, zilindro-zurtoinak, bielak, uhalak, kateak, piñoiak e.a., haien guztien zeregin bakarra, mugimendua transmititu eta aldatzea delarik; edo gurpilak, arrabolak eta, oro har, pieza gidatuak bezalako elementuak.
- Lanean sartzen diren elementu mugikorrak: bere ekintza zuzenarengatik, makina batek materia eragiten duen kasuetan (trokelak, moldeak, matrizeak, ijezketa- edo inpresio-zilindroa, oratze besoa).

a) Transmisio-elementu mugikorrak

Energia transmititzen duten edo lan-ekipoak mugitzen dituzten elementu mugikorrek, kontaktu mekanikoaren arriskuak aurkeztu eta istripuak sortzen baldin badituzte, babes edo tresna egokiez hornituta egon behar dute, gune arriskutsuetara heltzea eragozteko edo, teknikoki posible den neurrian, elementu arriskutsuen mugimenduak geldiarazteko, langileak kaltetu aurretik.

Transmisio-elementuek sor ditzaketen arrisku mekanikoak (harrapaketa, zanpaketa, ebakidura) desagertu araztea edo murriztea da kontua.

Mantentze-eragiketetan izan ezik, normalean ez da beharrezkoa mugitzen ari diren organo horietara heltzea makinaren ohiko erabilpenean. Ondorioz, bertara heltzea eragotzi behar da.

Soluziorik errazena elementu arriskutsuak osorik isolatu ditzaketen gordeleku finkoak jartzea da, edota arriskuak tokian ezabatzea.

Baldintza hauek ez dute inolako garrantzirik, urruti egoteagatik eskutik kanpo dauden elementuen kasuan (esaterako, altueran 2,5 metro baino gehiagotara dauden elementu mugikorren kasuan); baina, kasu honetan, organo horien gainean egin beharreko mantentze ekintzak behar bezalako baldintzetan egin

Lan-ekipo baten elementu mugikorrak kontaktu mekanikoarengatik istripu-arriskua dutenean, gune arriskutsuetara heltzeko bidea eragozten duten gordeleku edo gailuak, edota gune horietara heldu aurretik maniobra arriskutsuak geldiarazten dituztenak, izan beharko dituzte.

Gordelekuak eta babesgailuak:

- a. Fabrikazio sendo eta iraunkorrekoak izango dira.
- b. Ez dute arrisku gehigarririk sortuko.
- c. Ez da erraza izango geldiaraztea edo zerbitzutik kanpo uztea.
- d. Gune arriskutsutik behar besteko distantzia kokatuta egon beharko dute.
- e. Bakarrik ezinbestekoa edo beharrezkoa den neurrian mugatuko dute lan-zikloaren behaketa.
- f. Tresnak jarri edo aldatzeko eta mantenimendu-lanetarako ezin bestekoak diren interbentzioak egiten utzi beharko dute; lana egiteko behar den sektorerara heltzea bakarrik izango da posible, eta posible izatekotan, ez da gordelekurik edo babesgailurik desmuntatuko.

behar dira, erortzeko arriskurik egon ez dadin.

Sarritan aritu behar izanez gero (doikuntzen kasuan), elementu arriskutsuak geldiarazten dituen tresna batez hornitutako gordeleku mugikorrak erabili behar dira, babeslea bere tokitik kanpo dagoenean (hau da, katigamendu elektrikoko tresnetan).

Helburu hau bete ezina dela onartzen da, teknikoki ezinezkoa bada materialak balaztatzeko tresna egokiez hornitzea.


Praktikan, makina zaharrak askotan gordeleku mugikorrak dituzte, katigamendu elektrikorik gabe; horren ondorioz, mugitzen ari diren transmisio-organoetara heltzea posible izaten da. Hori dela eta:

- Gordeleku mugikor hori torlojoen bidez segurtatutako gordeleku finko bihurtu behar da; horrela, gordeleku finko bilakatzen da (araudiaren arabera).
- Gordeleku hori giltzaz ixten den sarraila batez hornitu behar da eta, posible izatekotan, giltza baimendutako pertsonen eskuetan geratzen dela ziurtatu beharra dago.
- Gordeleku hori posizio-etengailuaz edo antzeko dispositibo batez ekipatu behar da, horrela katigamendu elektrikoa ziurtatu ahal izateko.

Lehen bi irtenbideak bakarrik hartu behar dira kontutan, langileen jarduera aztertu ezker, inolako arazorik sortzen ez denean (hala nola, eskuhartzearen maiztasuna, heltzeko zailtasunak, gordelekuak desmuntatu eta jartzeko eragiketen konplexutasuna), horrek eramango bailituzke gordelekuak ez berritzera. Posible da katigamendu elektrikoa ez erabiltzea, elementu mugikorretara heltzea, ohiko ekoizpen-eragiketa eta tresnaren funtzionamenduaren parte denean.

Bakarrik onar daiteke katigamendu elektrikorik ez egotea:

- Makina ez badago agente-sistema automatiko baten kontrolpean.
- Makinak, funtzionatzeko, langile kualifikatuak behar baldin baditu.



- Helbidea bakarrik eskuhartze-mota bakar baterako posible bada (gordeleku mugigarri batek katigamenduz hornituta egon behar du, elementu mekaniko, hidrauliko edo elektrikoetara heltzen uzten badu, doikuntza edo mantentze-lanetarako).

Katigamendu-dispositiboaren instalakuntzak tamaina txikiko makinetan arazo tekniko bat azaltzen badu, katigamendu-dispositibo hori ez egotea onartzen da, aurreko baldintza berberetan; gainera, seinaleztapen osagarri egokia jarri beharko da.

Ekipo mugigarrien kasuan, artikulua hau tresnaren ohiko erabilpenari buruzkoa da, ez mantentze- edo konponketa-eragiketei buruzkoa, lan-prozedura espezifikoak behar baitituzte.

Tresna baten gidatze-postua eta motorren kapota gidariarentzako babesleak dira transmisio-elementu mugikorrekiko kontaktuen aurrean.

b) Lanarekin zerikusia duten elementu mugikorrak

Giza indarra ez den iturri-energia batek mugitutako lan-ekipoek, elementu mugikorrek behar badituzte, lana egiteko biltzen badira eta kontaktu mekanikoarengatik istripuak sor baditzakete, jarrita, babestuta, gidatuta edo ekipatuta egon behar dute langileak gune arriskutsura hel ez daitezen.

Hala ere, elementu mugikor horietako batzuk erabiltezin bihurtu ezin badira, osorik edo neurri batean, funtzionatzen ari direla, egin behar diren eragiketak eta langilearen eskuhartzea behar dutenak kontutan izanik, elementu mugikor horiek, teknikaren aldetik posible denean, gordelekuak edo babesgailuak izan behar dituzte.

Hauek, lanerako erabiltzen ez diren elementuen ataletarako helbidea mugatu eta debekatu behar dute. Teknikak aurreko xedapenak betetzen uzten ez duenean, lan-ekipoek jarrita, babestuta, gidatuta edo ekipatuta egon behar dute, arriskuak ahalik eta gehien murrizteko moduan.

Oro har, arriskua duten aldietan, tresnen lan-eremura heltzeko bidea guztiz eragozteko da kontua.

Printzipio hau ezartzen zaie, esaterako, ziklo automatikoetan diharduten makinei, zikloan pertsonen eskuhartzerik ez badago, eta, batez ere, metalak hotzean lantzeko prentsetan. Egia esan, tresna batzuen kasuan, ezinezkoa da printzipio hori hitzez hitz errespetatzea.

Zura lantzen duten tresnak, eta makina-erreminta asko, ekoizpenean zein mantentzerako erabiliak, kasu horretan daude. Ondorioz, onartzen da lan-eremura heltzeko bidea guztiz debekatuta ez egotea, helbidea lana egiteko guztiz beharrezkoa denari mugatzen dioten gordelekuak edo babesgailuak baldin badaude.

Printzipio horiek ezin badira ezarri, tresna baten ezaugarri funtzionalekin bateraezinak izateagatik, konpentsazio-neurriak ezartzea onartzen da, arriskuak ahalik eta gehien murrizteko. Aurreikuspenaren ikuspuntutik, errespetatu beharreko hiru kasu izan behar dira kontutan:

b1. Erabateko helezintasuna lan-elementu mugikorretara heltzeko

Helburu hau lortzeko, irtenbiderik erabiliena makina honela hornitzea da:

- Gordeleku finkoez, salbuespen moduan edo oso gutxitan heltzen den tokietan.
- Gordeleku mugikorre, batez ere piezen eskuzko zamaketa eta deskarga ahalbideetarako. Gordeleku mugikor hauek katigamendu-dispositibo bati edo katigamendu- eta blokeo-dispositibo bati lotuta egon behar dute, arriskuek arazoitzen badute.

Halaber, posible da babesgailuak erabiltzea; hala nola, oztopo inmaterialak, bi eskuz eragin beharreko aginteak, bereziki lan-eremura heltzeko bidea sarritan erabiltzen denean eta gordeleku mugigarriaren maniobra oso eraginkorra ez denean.

Praktikan, gordeleku finko edo mugikorre eta babesgailuen arteko konbinaketa bat erabiltzen da askotan.

b2. Irisgarritasun partziala lan-elementu mugikorretara heltzeko

Lan-elementu mugikorretarako helbidea guztiz eragozte ezi-nezkoa denean, beharrezkoa da, aurreko kasuan bezala, lan-eremuko aldeak edo tresneriaren atalak, nora eta heltzea beharrezkoa ez baita, babesleku finkoez hornitzea, eta gordeleku mugikorrak jartzea, erraz erregulatzeko moduan, lan-elementuaren alde aktiboan. Egurrerako zerra zirkularra kasu honetarako adibide egokia da:

- Orriaren beheko alde guztiz eskuraezina da, finkoa izan daitekeen babesle bati esker.
- Orriaren alde aktiboa eskuz erregula daitekeen babesle batez hornituta dago; horri esker, bakarrik tresnaren benetako alde baliagarria heltzea da posible.

b3. Ezinbesteko irisgarritasuna lan-elementu mugikorre- ra heltzeko.

Kasu honetan, istripu baten ondorioak murrizteko har daitezkeen neurriak, adibidez, honakoak dira:

- Eragiketa hauek behar bezalako kualifikazioa duten langileentzat erreserbatzea.
- Banako babes-ekipo egokiak langileen esku jartzea.
- Larrialdiko geldialdiak egiteko dispositiboak erabiltzea, langileen esku jarrita daudelarik.

Arrabolak dituzten makina batzuk (metal-kurbatzaileak) adibide ona dira kasu hau argitzeko, makina hauetan, arrabolen bateratze-gunea iristezin bihurtzea ezienezkoa den neurrian.

Beste alde batetik, beharrezkoa da lana antolatze neurriak eta erabiltzeko prozedurak ezartzea; hain zuzen:

- Abiadura mugatzea.
- Lan- edo eskuhartze-prozedurak definitzea eta ezartzea, arriskuak ahalik eta gehien murrizten uzten baitute.

- Langileak era egokian prestatzea.

Ekipo mugikorretan, arriskuaren azterketari esker zehaztu ahal izango da zer-nolako babesak erabili behar diren.

Gune arriskutsuan noizean behin lan egin behar duten langileek, aurrez aurre dituzten arriskuen inguruko informazioa izan behar dute eta beharrezkoak diren banako babes-ekipoak izan behar dituzte.

Arriskuak murrizteko babesleak jartzea aintzat hartu behar da, instalazioa egileak definitutako erabilpenerako moduan erabiltzea eragozten ez den kasuetan bakarrik. Esaterako, ez da egokia bulldozer baten kateak edo gurpilak zaintzeko babeslea jartzea.

c) Babeskiak eta babesgailuak

1. Osaera sendoa erabilpen-baldintzei egokitua, izan behar dute.
2. Ez dute arrisku osagarriarik sortu behar; bere osakideetako baten huts egiteak ez du babesteko funtzioa konprometitu behar
3. Ezin dira erraz kendu, ezta erabilgaitz utzi ere.
4. Gune arriskutsutik behar adinako distantziara egon behar dute; eta distantziak bateragarria izan behar du, elementu mugikorrak geldiarazteko behar den denborarekin.
5. Gune arriskutsua oso ongi identifikatzen utzi behar dute.
6. Lan-zikloaren behaketa ezin da behar baino gehiagotan mugatu.
7. Elementuak jarri edo aldatzeko, eta mantentze-lanak egiteko ezinbestekoak diren eskuhartzeak utzi behar dituzte; lana egiteko behar den eremurako helbidea mugatu behar da eta, posible bada, babeskiak edo babesgailuak desmuntatu gabe.

Ekipo mugikorretan, babes-bidea aukeratzeko faktore batzuk hartu behar dira kontutan. Batez ere:

- Gaingitu nahi den arriskuaren mota eta garrantzia.
 - Tresnaren ezaugarriak eta, bereziki, erabiltzeko zailtasunak.
 - Langileen jardueran dauden aldi ezberdinak.
- Lanpostu bakoitzean argiztapen-maila egokia ziurtatzea da

9. ARGIZTAPENA

helburua, lan-mota eta postuaren izaera kontutan izanik. Begibistakoa da maila oso ezberdina izango dela, esaterako, makina batean zama-postu sinplea bada, edo goi-doitasuneko mikro-mekanikaren arloko lanpostua bada. Oharpen gisa, kontutan hartuko dira lantokiei buruzko 486/1997 E.D.ren 4. eranskinean azaltzen diren argiztapen-mailak.

Industria-jarduera batzuen kasuan, batzaz besteko argiztapen-baloreak honakoak dira:

- Makina-erremintak: 300 lux

Lan-ekipo baten lan edo mantentzerako gune eta puntuak, argiztapen egokia izan beharko dute, egin behar diren lanen arabera.

- Zurgintzarako tresnak: 500 lux
- Muntaketa-postua (elektronikoa): 750 lux
- Joskintza-postua (jantzigintza): 1.000 lux
- Doitasuneko mikromekanika: 1.500 lux

Helburu hau honela lor daiteke:

- Lantokian dagoen giro-argiztapen natural edo artifiziala erabiliz, nahikoa den neurrian.
- Lanpostuaren tokian argiztapen finkoko gailu gehigarria jarri.
- Eskuhartzeak ohizkoak ez diren tokietan -esaterako, mantentzeko ekintzak egiten diren tokietan-, makinan edo bere inguruan korrante-hargunea hartzen da, lanpara eramangarria lotzeko moduan.

Makinetan integratutako argiztapen-ekipoei dagokienez, gomendatzen da 50 V baino gutxiagoko elikatze-tentsioa erabiltzea. Dena den, erabilitako materiala denean, makinaren gainean jarritako tentsioa baino handiagoa (120 V edo 230 V) erabiltzea onartzen da, leku oso hezeetan izan ezik.

Gomendatzen da ere hodi fluoreszenterik ez erabiltzea, teknologian aurrerakuntza asko egon badira ere, horrelako materialean egon daitekeelako tresna batzuetan arriskutsuak diren ondorio estroboskopikoen jatorria.

Eraikuntza-lanetarako makinetan dauden korrante-harguneak eguraldi txarraren ondorioetatik babestu behar dira (IP egokia).

Temperatura altuak edo oso baxuak izan ditzaketen lan-ekipo baten atalek babestuta egon beharko dute, kontaktu-arriskuak eta langileen hurbiltasuna egon daitezkeenean.

10. AZAL BEROAK EDO OSO HOTZAK


Bero-energiaren transmisio-elementuek sor ditzakeen erre-dura-arriskuak ezabatzea edo murriztea da helburua; hain zuzen, fluidoak, baporeak edo gasa goi-tenperaturan garraiatzeko erabiltzen diren kanalizazioak, bridak, junturak edo balbulen kasuan.

Oso temperatura baxuak kontutan izan beharrekoak dira, hauek ere erreduarak sor ditzaketelako.

Arriskua ebaluatzeko hartu behar den azaleko temperatura, ezberdina izango da, materialaren izaeraren (metala, plastikoa) eta larruarekiko kontaktuaren denboraren arabera.

Adierazgarri moduan, oro har onartzen da metalezko azal leun batek ez du erre-dura-arriskurik sortzen nahigabeko kontaktua-rengatik (gehienez, 2tik 3ra bitarteko s), bere temperatura ez bada 65° C baino altuagoa.

Temperatura horren azpitik, ez da prebentzio-neurririk behar. Arriskua egotekotan, honako irtenbide hauek ezartzen dira, besteak beste:



- Bero-isolatzailea jartzea elementu arriskutsuen inguruan.
- Kalorien galtzea bideratzen duten babeskiak egokitzea (sarettoa, xafla zulatua).
- Gune arriskutsurako helbidea osorik ezabatzea, baranda bat edo bestelako babeski materialak jarritz.

Ekipo mugikorretan, arrisku hori daukate, batez ere, motore termikoek eta ihesak, baina orokorki babestuta dauden elementuak dira.

11. ALARMAGAILUAK

“Seinaleztapen eta ohartarazpena” izeneko 13. puntuan azaltzen direnen antzekoak dira.

Lan-ekipoaren alarmagailuak erraz eta anbiguotasunik gabe ikusi eta ulertu beharko dira.

12. ENERGIA-ITURRIEN BEREIZKETA

Lan-ekipoak eta beren elikatze-iturriak bereizteko baliabideak, gune arriskutsuetan diharduten langileek banantzeaz ziurtatzeko modua izan beharko dute.

Lan-ekipoetan metatzen diren energiak erraz desagerraraziko dira, langileen seguritatea konprometitu gabe. Energia desagerrarazterik ez dagoenean, egokitutako neurriak langileen esku jarri ezker, metatutako energia egoteak ez du arriskurik ekarriko.

Atal honen helburua, makina bakoitzean arriskurik gabe aritzea da, kontsignazio baten bidez, batez ere mantentze, konponketa eta garbiketa lanetarako.

Lan-ekipo orok erraz identifika daitezkeen gailuak izan beharko ditu, bere energia-iturri bakoitzetik banatzeko moduan.

Makina baten kontsignazioa, funtsean, hauex da:

- Energia-iturri guztiak bereiztea: elektrikoa, pneumatikoa, hidraulikoa, mekanikoa eta termikoa.

- Banantze-dispositiboak iltzatzea, energia ezordutan berrezartzen bada.
- Metatutako energiak desagerraraztea.
- Energiarik ez dagoela egiaztatzea.

Tresna mugikorren eta jasogailuen energia-iturriek, norma-lean, ez dute banantze-erari lotutako arrisku espezifikorik sortzen, ohiko erabilpenean. Bakarrik mantentzeko eragiketetan ager daitezke arriskuak, eta langilearentzat prestaturiko kontsignen bidez ezabatu daitezke.

Kontsigna hauek, bereziki, energiak seguritate-baldintzetan bereizteko behar diren modu eraginkorrak arautzen dituzte (zirkuitu hidrauliko eta pneumatikoen purga, kontsignazio elektrikoak dorre-garabien kasuan).

a) Energia elektrikoa

Energia elektrikoari dagokionez, bereizketa honako hauek erabiliz ziurtatzen da:

- Ebakigailua
- Bere kontaktu nagusiak ireki aurretik karga-deskonexiorako kontaktu laguntzaileaz hornitutako ebakigailua (ebaki aurreko kontaktua).
- Etengailu ebakitzalea.
- Ebakuntza-funtzioaz hornitutako disjuntorea.
- Korrante-hargunea 16 A intentsitaterako edo txikiagorako, eta 3 KW baino gutxiagoko potentzia osorako.
- Karga-deskonexiorako kontaktua duen korrante-hargunea, 16 A baino gehiagoko intentsitaterako.

Ebakigailua erabiltzeko arreta berezia behar da, aparatu hau hutsean funtzionatzeko aurreikusita baitago eta, kargan dagoela martxan jarri ezker, lehertu dezake, maniobra oker baten ondorioz.

Kontaktu laguntzaileaz hornitutako ebakigailuek arrisku hori desagerrarazten uzten dute, bere kontaktu laguntzailea era egokian konektatuta baldin badago.

Banantze-dispositiboek, beren teknologiarengatik, berme osoa eskaini behar dute eragingailuaren posizio bakoitza (irekita/itxita), kontaktuen jarrera berberarekin (irekita/itxita) bat etortzeko, ezinbestean.

Honek garrantzi berezia du aparatuak ikusezinak direnean edo guztiz agertzen ez direnean. Korrante-hargune baten larakoa kentzea, kontsignazio baten ekintza baliokidetzat har daiteke edozein tresna txikiren kasuan, bertan ziurtasun osoa baitago larakoa ezin dela bere oinarrian berriro jarri, makina erabiltzen duen pertsonak enteratu gabe.

b) Energia hidraulikoa eta pneumatikoa

Energia-mota hauen kasuan, banantze-dispositiboa giltza bat, balbula bat edo eskuzko banagailua izan daiteke. Pneumatikoan “entxufe azkarra” erabil daiteke, potentzia gutxiko makinaren kasuan elektrizitateko korrante-hargunea bezalaxe.

c) Energien desagertarazpena

Metatutako energien desagerrarazpena, batik bat, metagailu hidraulikoak purgatzea, aire konprimatuko ontziak (kanalizazioak) hustea eta kondentsadoreak deskargatzea da.

Halaber, kontutan izan behar da:

- Agian hainbat elementu mugi daitezkeela grabitatearen-gatik (energia potentziala).
- Presiozko fluido-zorrotaden igorpena, kargatuta geratu diren zirkuitu hidrauliko edo pneumatikoetan egindako eragiketetan.
- Tentsio-atalekiko kontaktua, energia elektrikoaren elikatzea eten arren (zirkuitu zehatzak mantentzea, esaterako, aginte-sistema elektronikoen kasuan bezala).
- Elementu inertziadunak (inertzia-bolanteak, harri urratzaileak, e.a.).
- Energia-mota batzuk desagerrarazi edo kontrolatzeko zailtasuna. Esaterako, bero-energia edo erradiazio-iturriak.

Arrisku hauek ezabatzeko, hainbat baliabide jarri behar dira langileen esku. Hala nola:

- Eskorak edo tope mekanikoak (eusteko dispositiboak), behar bezain sendoak eta egokiro dimentsionatuak, edota, katigamendu-dispositibo bati elkartuak, eragileei energiaz elikatzeko sistematik deskonektatzen direla bermatzeko moduan, zilindro hidrauliko baten ganbararen presioa eusteko edo prentsa baten irristailua erori ez dadin, esaterako.
- Kako eta eslingak, zamak mantentzeko.
- Tokian kokatutako pantailak fluido-proiektzioen aurka babesteko, edo tentsioan dauden zatiekiko kontakturik ez egiteko.



Lan-ekipoak, langileen seguritatea bermatzeko ezinbestekoak diren ohar-tarazpen eta seinaleztapenak eraman behar izango ditu.

13. SEINALEZTAPENA ETA OHARTARAZPENA

Ohartarazteko seinale eta dispositibo hauek erraz eta anbigutasunik gabe ulertzeko moduan aukeratu eta jarri behar dira.

Langileek lan-ekipo baten funtzionamendu-ezaugarri teknikoak hautatu eta erregulatzeko aukera dutenean, eragiketak seguritatez egin daitezen beharrezkoak diren ohar guztiak eraman behar ditu lan-ekipo horrek.

Abiadura-muga, zeinen gainetik lan-ekipo bat arriskutsu bihurtu baitaiteke, argi eta garbi zehaztu behar da.

Makina baten funtzionamendu-parametroak aldatu ezkerro egoera arriskugarriarik sor daitekeenean, langilea edo zerikusia duen beste edonor eraginkortasunez erne jarri ahal duten baliabideez hornitu behar da makina hori.

Oro har, seguritate-argibide horiek orokorki alerta-atalaseen detekzioari lotuta daude (esaterako, presioa, tenperatura, abiadura, substantzia arriskutsuen presentzia), eta baliagarriak dira langileak eragin ahal dituen parametroetarako bakarrik.

Argi antzeman behar dira, aginte-postuan zein era zabala goa batean, arriskatu ahal diren edo eskuhartu dezaketen hirugarrenengan eragina baldin badu.

Orokorki, argi- edo soinu-seinaleak dira, baina argi-pantaila baten gainean emandako mezuak izan daitezke. Seinaleztapen-dispositiboek gain, batez ere atalase-detektatzailez (presostatotatik, termostatoz) hornituta dauden ekipoek ahalik eta arreta handienez jarri, mantendu eta egiaztatu behar dira.

Azalpen gisa, pilotu eta argi-seinaleetarako erabiltzen diren koloreak hauek dira:

- Berdea: ohikoa.
- Horia: anomalia/eskuhartzea.
- Gorria: arriskua/premiazko ekintza.

Zenbait makinatan, langileak funtzionamendu-modu batzuen artean aukeratu behar du, edo bere parametroak aldatu behar ditu.

Kasu horretan, beharrezkoa da makina orok seguritatez funtzionatzeko behar diren argibide guztiak izatea (ebaketa-abiadura makina-erreminta baten kasuan, pieza bat finkatzeko presioa).

Argibide horiek makinaren gainean jarrita egon ahal dira-hau irtenbiderik eraginkorrena baita-, edota lanpostuaren inguruetan, kartel finko gisa.

Ekipo mugigarrietan, makina baten funtzionamendu-parametroen aldakuntza egoera arriskutsu baten jatorria izan daitekeenean (adibidez, itzuleran, joan-etorrian), makina hori hornitu beharra dago, arriskatuta egon ahal diren langileak eraginkortasunez erne jartzeko baliabideez.

Esaterako, soinu-seinalearen erabilpen automatikoa ezabatzeko modua egongo da, ez ohitzeko, makina batzuk eremu berean dihardutenean, edo gauez lan egiten bada, hirigune batean, inguruari kalterik ez giteko.



14. SUTEA

Eztanda-arriskuarekin batera aztertzen da.

Lan-ekipo oro egokia izango da langileak arriskuetatik zaintzeko, suteen kasuan, ekipoaren beraren berotu ez-kero, edo ekipoak sortu, erabili edo bildutako gas, hauts, likido, bapore edo bestelako substantzien jariaturak badaude. Langileen seguritate eta osasunerako arriskugarriak diren giro-, klima-edoindustria-baldintza erasokorretan erabilitako lan-ekipoek, horrelako giroetan lan egiteko ekipatuta egon behar dute eta, hala badagokio, babes-sistema egokiak, kabinak edo bestelakoak, izan behar dituzte.

15. EZTANDA

Arrisku hauek, errekortzat hartzen diren produktu edo materialez gain, agerian arriskugarriak ez diren produktuekin ere azal daitezke; esaterako, zereal-irinarekin.

Arriskua dagoenean, prebentzio-bide ezberdinak aztertu daitezke, produktuaren eta instalakuntza-motaren arabera. Sute- edo eztanda-arriskuaren faktorerik garrantzitsuena, elektrizitatea da.

Lan-ekipo orok egokia izan behar du eztanda-arriskuari aurre egiteko, bai lan-ekipoaren beraren eztanda bada, bai berak sortu, erabili edo bildutako substantzien eztanda izanda ere.

Gain-intentsitateen aurkako babesari buruzko arauak errespetatu behar dira eta, beharrezkoa denean, atmosfera lehergarrian erabiltzeko elektrizitate-ekipo espezifikoak erabili behar dira. Arreta berezia merezi dute elektrizitate estatikotik sortutako arazoek.

Hona hemen beste prebentzio-bideak:

- Produktu arriskutsuez hustea eta, horretarako, jatorrian zurgatzea (bide hezean, hauts lehergarriak badira).
- Produktu horiek leku itxi batean gordetzea, non eta tenperatura igotzeko edo txinpartak sortzeko arriskurik ez baitago, eta arreta berezia eman behar zaio ontziz aldatzeko eta mantenurako ontzi-motari.
- Hermetikoak, metalezkoak, zama-lanetan isuririk ez egoteko moduan diseinatuak eta lurrari konektatzeko gai izan behar dute.
- Inertizazio teknikak erabiltzea; hau da, produktua dagoen atmosferaren osaera aldatzea, suak hartu ez dezan.
- Kontrol-dispositiboak jartzea, airean substantzia sukoia- ren kontzentrazioa (atmosfera lehergarria) sukoitasuna- ren eremutik at automatikoki mantendu ahal izateko.

Neurri hauek ezarri ezin direnean, edo aski eraginkorrak ez direla egiaztatzen bada, lehentasunezko dispositibo automati-koak erabil daitezke, itzalgailuen bidez edo material geldo bat era masiboan sartuz.

Adibide gisa, metalezko aleazio sukoiak lantzen dituen di-mentsio handiko mekanizazio-zentro baten kasuan, irtenbide ona da txirbilak aldian-aldian hustea, metatzerik egon ez dadin, eta lan-eremuaren inguruan itzalgailu automatiko espezifikoak jartzea.

16. ELEKTRIZITATE-ARRISKUA

Lan-ekipo orok egokia izan beharko du langileak elektrizitatearekiko kon-taktu zuzen edo zeharkakoaren arris-kutik babesteko. Edonola ere, lan-eki-poen alde elektrikoek dagokien araudi espezifikoan ezarritakoa bete beharko dute.

Elektrizitate-arriskuaren aurkako babesaren printzipioa ez zaie makinei bakarrik ezartzen, establezimendu bateko instala-kuntza elektriko guztiei baizik.

Makinei dagokienez, bereziki honako puntu hauek egiaztatu behar dira:

- Tentsiopeko atal guztiek babesturik egon behar dute kon-taktu zuzenen aurka.
- Materialen lurrerako jartzea ziurtatu beharra dago, kasu partikularretan izan ezik (hala nola, isolamendu bikoitza duten tresnen kasuan); babes-eroaleek jarraitutasun elek-triko ona izan behar dute (moztuta ez dauden eroaleak eta lotura fidagarriak, hain zuzen), eta berde-horia kolorazio bikoitza eraman behar dute.
- Makinen ekipo ezberdinek, babes-eroalearekin, paralelo-an egon behar dute konektatuta, ez seriean.
- Makina edo ekipo bat ezin izango da berotu, sutea sor-tzeko moduan. Gain-intentsitateen aurkako prebentzio-dis-positiboak (errele termikoak, magnetotermikoak, fusibleak) egiaztatu, aldatu edo osatu behar dira, beharrezkoa izate-kotan.

- Makinak hornitzen dituzten elektrizitate-eroaleek eta, bereziki, kable bigunek, egoera onean egon behar dute; bere isolatzailea ez da 0,5 megohm baino txikiagoa izango.

Makina baten ekipo elektrikoak nolabaiteko konplexutasuna duenean, osatzen duten zirkuitu eta materialek behar bezala identifikatuta egon behar dute. Instalazioaren eskema bat elektrizitate-koadroan gordeta geratuko da.

Lurrerako hargunea egiteko dagokion araudia bete beharko da eta bere balioak bateragarria izan behar du dauden dispositibo diferentzialen atalasearekin.

Zailtasun tekniko edo ekonomikoengatik lurrerako hargune eraginkorra egitekoa ezinezkoa bada, edo bere balioaren inguruko zalantzarik badago, posible da eta, zenbait kasutan, derri-gorrezkoa, sentikortasun handiko dispositibo diferentzialak jar-tzea (30mA baino txikiagoak); instalazio finkoetan, irtenbide hori ohiz kanpoko izango da.

Atal horrek bakarrik izango du eragina makina mugikor batzuen elikadura-instalazio finkoetan (industria-eskorgen, palen eta abarren kasuan) eta jasotzeko ekipo batzuetan (dorre-garabietan). Material hauek arriskua ezabatzeko sortuak dira.

17. ZARATA, BIBRAZIOAK ETA ERRADIAZIOAK

Zarata eta bibrazioen transmisioa txikiagotzen saiatu behar da, posible izatekotan, lan-ekipoetan bibrazioen aurkako laguntzak jarritz. Oinarrizkoa da ere laguntza horiek ongi mantentzea.

Ekipo eramangarrietan, bibrazioak murrizteko bibrazioen aurkako heldulekuak instalatzeko aukera aztertu beharra dago.

Neurri teknikoak banako babes-ekipo egokien erabilpenarekin eta antolakuntzaren arloko neurriekin osatu ahal izango dira, esposizioaren denbora mugatuko delarik.

Zarata, bibrazio edo erradiazioen-gatik arriskuak dituen lan-ekipo orok, agente fisiko horien sorkuntza eta zabalkuntza ahal den neurrian mugatzeko babesle edo dispositibo egokiak izan beharko ditu.

18. LIKIDO KORROSIBOAK EDO GOI-TENPERATURAZKOAK

Likido korrosiboen manipulazioan edo biltegitratzean, antolakuntzaren arloko neurriak (hala nola, lanerako jantzi egokiak eta banako babes-ekipoak erabili araztea), eta babes-neurriak ezarri behar dira lan-ekipoetan bertan.

Likido korrosiboak edo goi-tenperaturazkoak biltegitratu, ontziz aldatu edo tratatzeko lan-ekipoek, babes egokiak izan beharko dituzte, langileek haiekin ustekabeko kontakturik izan ez dezaten.

19. ESKU-ERREMINTAK

Esku-indar zuzenaren erabilpena behar duten tresnak bakarrik eragiten ditu atal honek (bihurkinak, mailuak, zerroteak...). Oro har, atal honek zerikusi handiagoa du ekipo horren bidez egiten den erabilpen oker posiblearekin, beren baldintza teknikoekin baino.

Esku-erremintak material sendoez egingo dira, eta beren elementuen arteko loturak irmoa izan beharko du, bertan hausturarik edo proiektiorik egon ez dadin. Bere kirten edo heldulekuek tamaina egokia izango dute, ertz zorrotzik eta azal irristakorrik gabe eta, beharrezkoa izatekotan, isolatzaileak izango dira.

1.2. LAN-EKIPO ZEHATZEI EZAR DAKIZKIEKEEN GUTXIE-NEKO XEDAPENAK

1. AUTOMOTOREAK IZAN ALA EZ, LAN-EKIPO MUGI-GARRIEI EZAR DAKIZKIEKEEN GUTXIENEO XEDAPENAK

a) Arriskuak lekualdaketa

Garraiatutako langileak dituzten lan-ekipo mugikorrek egokitu beharko dira, lekualdaketa langilearentzat edo langileentzat arriskuak murrizteko moduan.

Arrisku horien artean, langileek gurrpil eta beldarrekiko kontaktuarengatik eta harrapatzeagatik izan ditzaketenak sartu beharko dira.

Gidatze-postura edo beste langileentzako ekipatutako postura geldialdian bakarrik joateko aukera dagoenean, langile horiek, desplazamenduan, zerikusia duten elementu mugikorrekiko kontaktuan jartzeko arriskuei aurre egin nahi bazaie, postu horien eta elementu mugikorren arteko behar besteko distantzia ezarri behar da.

Egoera batzuetan babesleak jartzea beharrezkoa da; batez ere lanetarako makina txikien kasuan.

Desplazamenduan gidatze- edo lan-postuetara heltzea posible denean, kontutan izan behar dira, orduan ere, iristen den bitartean, elementu mugikorrekiko kontaktu-arriskuak.



b) Energia transmititzeko elementuen blokeoa

Lan-ekipo mugikor batetik bere osagarri edo atoielara energia transmititzen duten elementuen ustekabeko blokeoak arrisku espezifikoak sor ditzaketenenean, ekipo hori ekipatu edo egokitu beharko da, blokeo hori egon ez ez dadin.

Blokeoa galaraztea ezinezkoa denean, langileentzako kalte-ondoriorik ez egoteko behar diren neurri guztiak ezarriko dira.

Gehien bat nekazaritzarako materialei buruzkoa da.

c) Energia transmititzeko elementuen finkapena.

Lan-ekipo mugikorren artean energia transmititzeko elementuak finka daitezzen baliabideak aurreikusi beharko dira, lurretik arrastaka eramaten direnean, elementu horiek ikatzeko edo hondatzeko arriskua dagoenean.

Batez ere nekazaritzako materialei buruzkoa da (indar-hargunea duten traktoreak).

Artikulu honen helburua, erabiltzailearen arreta erakartzea da, makina edo ibilgailu mugikorraren eta bere babes-mailaren arteko egokitzapenaren inguruan, batetik, eta lan-egoerak sortutako arriskuen izaeraren inguruan, bestetik.

Iraulketaren arriskua ez dago bakarrik ibilgailu mugikorraren menpe, erabilpen-baldintzei lotuta dago ere: kabina edo seguritate-arkuaren ROPS ekipoaren beharra (ikus 1. oharra komentario honen bukaeran, hurrengo orrialdean) edo FOPS egituraren beharra (ikus 2. oharra komentario honen bukaeran), arriskuen ebaluaketaren menpe daude.

Iraulketaren arrazoi nagusiak gainkargak, aldapak eta gehiegizko inklinazioak, zoruaren egoera, gehiegizko abiadurak, kurbetan bereziki, eta oztopoekiko talkak dira.

Arrisku hauei aurre egiteko, lehendabizi, egin behar diren lanei egokitutako ibilgailua aukeratzea da.

Makinei buruzko 1435/92 E.D.ren 1. eranskinean, 3.4.3. atalak, bere kontzepzioarengatik derrigorrez iraulketaren aurka



babesteko egituraz hornituta egon behar duten makinaren zerrenda definitzen du.

15 KWko potentzia baino gehiago duten ibilgailuak dira:

- Zamagailu beldardunak eta gurpildunak.
- Pala zamatzaileak (atzerakako zamagailuak).
- Traktore beldardunak edo gurpildunak, nekazaritza edo basogintzarako traktoreak izan ezik.
- Desugertzeko makinak, autokargatzailea izan ala ez izan (mototraila).
- Nibelatzeko makinak (motonibelatzaileak).
- Aurreko trena duten brozelak (Dumper kamioia).

1997ko urtarrilaren 1etik, makinaren eraikitzaileari dagokio zehaztea, makinaren ohiko erabilpenak iraulketa-arriskua sor dezakeen ala ez. Ondorioz, kasua hori bada, egileak diseinu-aldian aurreikusi behar ditu ainguraketa-puntuak, iraultzetik babesteko dispositiboa muntatu ahal izateko.

Ainguraketa-puntuak derrigorrezkoak dira ekipo berrietarako. Horrek esan nahi du erabiltzaileak dispositibo hori erosteko

d) Iraultzeko eta objektuak erortzeko arriskua

Langileak garraiatzen dituzten lan-ekipo mugigarrietan, erabilpen-baldintza eraginkorretan, lan-ekipoaren inklinazio edo iraulketarengatik sortutako arriskuak mugatu beharko dira, ondoren aipatzen diren neurrietako baten bidez:

1. Egitura babeslearen bidez, lan-ekipoa gehienez bira baten laurdenean makurtu dadin.
2. Garraiatutako langilearen edo langileen inguruan behar adinako espazioa bermatzen duen egituraren bidez, ekipoa bira baten laurdena baino gehiagotan makurtu ahal denean.
3. Neurketa baliokidea duten bes-telako dispositiboren bidez.

Egitura babesle hauek lan-ekipoaren parte izan ahal dira.

Ez dira egitura babesle hauek eskatuko, lan-ekipoa, erabiltzen den bitartean egonkortuta baldin badago, edo diseinuak lan-ekipoaren inklinazioa edo iraulketa ezinezko bihurtzen duenean.

Inklinazioa edo iraulketa egotekotan, lan-ekipoaren partearen eta luraren artean garraiatutako langile bat zantpatzeko arriskua dagoenean, garraiatutako langilea edo langileak eusteko sistema jarri beharko da.

askatasuna duela, aurreikusitako erabilpenaren arabera. Edozein momentutan erabilpenak iraultzeko arriskua azaltzen badu, dispositibo hori jartzea komenigarria da.

Ainguraketa-punturik jartzeko aurreikuspenik ez duten ekipoen kasuan, erabiltzaileak iraulketarik ez egoteko neurri-mota guztiak hartu behar ditu.

Halaber, 1997ko urtarrilaren 1etik, egileak aurreikusi behar ditu ainguraketa-puntuak objektuak ez erortzeko egitura babeslea moldatzen uzten dutenak.

Egitura babeslea jartzea ez da aski iraulketarengatik sortutako arriskuei aurre egiteko, zirkunstantzia berdinean edo antzekoan, gidaria gidatze-postutik egozten bada.

Kabina bat jarri ezkerro, egozte-arrisku horri aurre egitea posible da. Zenbait kasutan, arrisku hori egon ez dadin, eusteko sistema bat jarri daiteke. Segurtasun-uhalek egokia izan daiteke, edota bestelako dispositiboa, egozte-arriskuari aurre egitea posible egiten badu. Eusteko sistema bat jartzen denean, komeni da egiaztatzea eserlekuaren euskarria gauza dela iraulketa egotekotan egindako ahaleginak jasateko. Jakina da, zenbait ekipotan, eserlekuaren euskarri horrek ez duela onartzen eusteko



1. Oharra. ROPS ekipoa: Iraulketaren kontrako egitura babeslea; gidariari eta beste langileei deformazioaren bolumen-muga bermatzeko sortu eta egina, makina irauli ezkerro zanpatu ez ditzan.

2. Oharra. FOPS egitura: Objektuen erorketaren aurkako egitura babeslea, gidariari eta beste langileei deformazioaren bolumen-muga bermatzeko sortu eta egina, objektuak edo materialak erori ezkerro, zanpatu ez ditzan.

sistema baten ainguraketarik.

e) Eskorga jasotzaileak

Langile batek edo gehiagok okupatutako eskorga jasotzaileek egokituta edo ekipatuta egon beharko dute iraultzeko arriskuak mugatzeko, honako neurri hauek ezarriz:

1. Gidariarentzako kabina jartzea.
2. Egitura bat, eskorga jasotzailea irauli ez dezan.
3. Egitura bat bermatzeko, eskorga jasotzaileak iraultzen badu, garratutako langilearentzat edo langileentzat aipatutako eskorgaren parte zehatzen eta lurarren artean behar adinako espazioa geratuko dela.
4. Egitura bat, langilea edo langileak gidatzeko eserlekuaren gainean mantentzeko eta irauli den eskorgaren zatiek harrapatu ez ditzaten.

Aurreko puntuan egindako komentario berberak.

Eskakizun hau betetzeko baliabide klasikoak kontaktu-giltza da. Bakarrik baimendutako pertsonak izango dute. Gainera, ekipoa aparkatuta dagoenean giltza kendu behar da.



f) Lan-ekipo mugikor eta automotoreek, bere desplazamendua langileentzat arriskugarria bada, honako baldintza hauek bete behar izango dituzte:

1. Abiaraztea.

Baimenik gabeko abiarazterik ez egoteko baliabideak izango dituzte.

2. Errailen gaineko ekipoa.

Baliabide egokiak izango dituzte, errailen gainean dabiltzan lan-ekipo batzuk aldi berean mugitu ezker, tal-ka posible baten ondorioak murrizteko..

Batez ere, dorre-garabi eta portale-garabien kontua da.

Arrisku hau baldin badago, talkarik ez egoteko dispositiboak jarri behar dira.

3. Frenaketa.

Balaztatu eta gelditzeko dispositiboak izan beharko dute; seguritateak eskatzen duen neurrian, erraz har daitezkeen aginteen bidez edo sistema automatikoen bidez eragindako lehenasunezko dispositibo batek balaztatu eta gelditu araziko du, dispositibo nagusiak huts egiten badu.

Onargarria da aginte-tresna batek, esaterako oinpeko batek, balaztaren kontrol-zirkuitu nagusia eta lehenasunezko sistemaren zirkuitua martxan jartzeko balio izatea. Baina kasu horretan, kontrol-zirkuituek independenteak izan behar dute, eta gidariari esan behar zaio zirkuitu nagusian edozein akats dagoenean.

4. Gidariaren ikusgarritasuna.

Dispositibo laguntzaile egokiak izan beharko dituzte, ikusgarritasuna hobetzeko, gidariaren ikus-eremu zuzenak ezin duenean seguritatea bermatu.

Instalatutako dispositibo laguntzaile hauek, atzera ispilu soila edo kameraz eta monitoreaz hornitutako sistema izan daitezke, besteak beste.



5. Argiztapen artifiziala.

Gauean edo toki ilunetan erabiliak izateko aurreikusita badaude, egin beharreko lanari egokitutako argiztapen-dispositiboak izan beharko dute, eta langileei behar duten seguritatea bermatuko diete.


Gauez lan egin dezaketen makina mugikorrek eta gailu jasotzaileek argiztapen-dispositiboak izan behar dituzte. Komeni da ziurtatzea ongi funtzionatzen dutela eta egin behar den lanari ongi egokitzen zaizkiola.



6. Segurtasuna: sutea.

Langileei kalte egin diezaieketen sute-arriskuak badituzte, haiak berak direla medio edo atoi edo kargengatik, suteei aurre egiteko dispositibo egokiak beharko dituzte, gertu dauden puntuetan dispositibo horiek dituzten erabilto-kietan izan ezik.

Adibideak: gar biziko materialak, termobirsorkuntza eta atoian eramandako isurtzaileak.



7. Urrutitik gidatutako ekipook (geldiune automatikoa).

Urrutitik maneiatzen badira, automatikoki gelditu ahal izango dira, kontrol-eremutik irtetea.

8. Urrutitik gidatutako ekipook (babsesgailuak).

Urrutitik maneiatzen badira eta, ohiko erabilpen-baldintzetan, langileekin talka egin edo zanpatu ahal badituzte, arrisku horiei aurre egiteko dispositiboez hornitua egon beharko dute, talka-arriskua kontrolatzeko dispositibo ego-kiak daudenean izan ezik.

g) Soinu-seinaleztapena.

Bere mugikortasunarengatik edo daramatzaten kargen mugikortasunarengatik arriskua ekar dezaketen lan-ekipoek, aurreikusitako erabilpen-baldintzetan, inguruan dauden langileen seguritateko, ohartarazteko soinu-seinaleztapena izan beharko dute.

2. KARGAK JASOTZEKO LAN-EKIPOEI EZAR DAKIZKIEKEEN GUTXIENEN XEDAPENAK

Lan-ekipo guztiei ezarri beharreko xedapenak, eta bereziki aparatu desmuntagarriak edo mugikorrak helburu dituztenak ahaztu gabe, artikulua honek era finkoan instalatutako jasogailuei ezarri beharreko xedapen teknikoak definitzen ditu. Ekipo desmuntagarri edo mugikorren kasuan bezalaxe, ekipo finkoen kasuan kontutan hartu behar dira, aparatuak bere erabilpenaren baldintzarik txarrenetan aplikatzen dituen indarrak handienak, sostengune eta eusleak definitzen direnean.

a) Egonkortasuna.


Kargak jasotzeko lan-ekipoak sendoki instalatuko dira ekipo finkoak direnean; gainerako kasuetan, elementu edo baldintza beharrezkoak izan beharko dituzte, erabiltzen diren bitartean bere irmotasun eta egonkortasuna bermatzeko; jaso behar diren kargak eta esekitzeko edo egiturei finkatzeko puntuetan eragindako tentsioak hartu behar dira, bereziki.

b) Jasotzeko ahalmena.

Kargak jasotzeko makinetan, bere karga izendatuaren azalpena egongo da, argi ikusteko moduan; eta, hala badagokio, makinaren konfigurazio bakoitzaren karga izendatua azaltzen duen karga-plaka bat.

Karga edo gehienezko kargak azaltzea:

Azalpen horri esker, egiten diren maniobren arduradunek etengabeko informazioa izango dute, erabilitako jasogailuen aukeren inguruan. Garrantzitsua da argibide horiek, alde batetik, (eta baldin badago), jarraibide-gidaliburuaren edo erabilpen-informazioaren edukiarekin zuzenean erlazionatuta egotea; eta, bestetik, tresna erabiltzeko konfigurazioa kontutan izatea.



Jasotzeko osagarriak.

Jasotzeko osagarriek markatuta egon beharko dute, segurtasunez erabiltzeko oinarritzko ezaugarriak identifikatzeko moduan.

Sarritan, jasotzeko osagarriak merkatuan eros daitezke makinetatik aparte eta erabiltzeko prest. Jasogailu bat erabiltzeko, jasotzeko osagarri asko eta anitzak behar dira eta, bere aldetik, makina ezberdinetan muntatu daitezke. Hori dela eta, jasotzeko osagarriek bere oinarritzko ezaugarriak argi azaltzea exijitzen da; eta, gutxienez, erabiltzeko gutxieneko karga (EGK) azalduko da.

Pertsonak jasotzeko helburua ez duten ekipoak.

Lan-ekipoak langileak jasotzeko helburua ez badu eta nahastea posible bada, seinaleztapen egokia ikus-teko moduan jarri beharko da. .

Debeku hau seinaleztatuta egongo da, batez ere, egilearen argibide-gidaliburuan agertzen denean.

c) Karga-mugimenduak.

Era iraunkorrean instalatutako lan-ekipoak jarri beharko dira karga amildu ez dadin, aska ez dadin edo nahi gabe era arriskutsuan desbideratu ez dadin edo, bestelako arrazoiengatik, langileak ez jotzeko moduan.

Artikulu honetan, erakunde-neurriak eta abiarazteko neurriak osatzeko xedapen teknikoak zehaztu edo azaltzen dira.

Talka-arriskuari aurre egiteko, hainbat dispositibo jartzea aurreikus daiteke; hala nola, karga eta aparatuaren mugimenduen ibilera eta gain-ibilera mugatzeko gailuak, presentzia-detektagailuak, kolisio-aurkako dispositiboak...

Istripu larri asko kargen kontrolik gabeko jaitsierarengatik sortzen dira.

Funtzionamendu mekanikoa duten jasogailuetan horrelakorik gerta ez dadin, honako baldintza hauek bete behar dira:

- Jasotzeko mekanismoek jaitsierarako abiadura-mugatzaila izan behar dute. Dena den, kontutan izan behar da motore batek abiadura mugatzeko funtzioa bete dezakeela, azele-razio-arrisku oro, jatorri mekanikoa zein elektrikoa izanik, desagertzen bada.
- Balaztek eta dispositibo baliokide guztiek automatikoki aktibatu behar dute, mugimendu-agintea itopuntuan jarri bezain laster, edo mekanismoaren eskuhartzea bukatu bezain laster, eta energia eragilean elikadura osorik edo partzialki eteten bada ere.

Eskuz funtzionatzen duten tresna jasotzaileek (zapata-tornuak, kremaiera-katuek) berehala geldiarazteko dispositibo bat izango dute, abiaraztea garaiz kanpo edo ustekabean desplazatu ez dadin, biraderaren itzulera bezalaxe.

Jasotze-kakoak badira, segurtasun-mihiak izan behar dituzte edo ustekabean askatzea ezinezkoa izateko diseinatuta egon behar dute.

Behar den dispositiboa, katu hidrauliko edo pneumatiko baten itzulera-aurkako tximeleta izan daiteke, kable edo kateez esekitako balaztada sistema mekanikoa, torlojo-aparatuatarako seguritate-torlojoa e.a.

Handiegia diren energia zinetikoen kasuan, dispositibo hori arriskutsua izan liteke eta, posible izatekotan, beste neurriekin ordezkatu behar dira.

Bidaiari-lekua lantoki gisa erabiltzen denean, barandek altuera egokia izan behar dute lana normaltasunez egiteko. Al-diz, maila ezberdinak komunikatzeko pertsona-jasogailua bada, babesleek gehienez egon daitezkeen altuera lortu behar dute (EN 294).

Ezarritako neurriak aski ez badira, ainguraketa-puntuak aurreikusiko dira bidaiari-lekuan egon daitezkeen pertsona-kopuruari lotutako kopuruan, eta banako babes-ekipoak erorketen aurka eusteko bezain sendoak izanik (EN 363-erorketen aurkako sistemak).

Lurrean edo sabaian tranpol bat dagoenean, edo alboko ate bat badago, erorketa-arriskuaren kontrako zentzuan ireki behar izango dira, ustekabean irekitzen badira.

Aparailu jasotzaile motorizatu bat baino gehiago duten aldamio esekiek, haietako baten funtzionamendua eragozten duen dispositibo bat izan behar dute, horrek plataformaren horizontaltasuna mehatxatzen badu.

d) Langileen jasotze eta desplazamendua.

Langileak jasotzeko eta desplazatzeko makinek, ezaugarri egokiak izan beharko dituzte kasu hauetarako:

Bidaiari-lekuaren erorketa

1. Dispositibo egokien bidez, bidaiari-lekua erortzeko arriskuei aurre egitea, horrelako arriskuak daudenean.

Erabiltzailearen erorketa.

2. Erabiltzailea bidaiari-lekutik erortzeko arriskuak ezabatzea, horrelako arriskuak daudenean.

Zanpatzeko arriskua.

3. Erabiltzailearen zanpaketa, harripaketa edo talka-arriskuak ezabatzea; batez ere, ezustean objektuekiko kontaktuen ondorio direnak.

Langileen segurtasuna

4. Langileen segurtasuna bermatzea, istripua egotekotan bidaiari-tokian blokeatuta geratzen badira, eta ateratzen uztea.

Tokiari eta desnibelari atxikita daude arrazoiengatik aurreko 1. paragrafoan aurreikusitako arriskuak ezin badira ezabatu inolako seguritate-dispositiboren bidez, seguritate-koefiziente indartua duen kable bat jarri beharko da, eta bere egoera ona lanegun guztietan egiaztatuko da.

Pertsonak jasotzeko sortu ez diren kargak jasotzeko ekipoei, ezin dira horretarako erabili.

II. Atala

Eraikuntzaren arloko lan-ekipoei ezar dakizkiekeen lege-eskakizunak betetzen diren egiaztatzea.

II.1. MAKINEI EZAR DAKIZKIEKEEN XEDAPENAK

Erantsitako figuran makinei ezar dakizkieken xedapen ezberdinen erreferentziak (1etik 7ra) azaltzen dira (zerrenda ondoren ematen da), aztertzen den makina-motaren arabera eta Espainian edo Europar Batasunean lehenbiziko aldiz merkaturatu zen egunaren arabera, kasua kasu (kontutan izan behar da Espainian edo EBn lehenbiziko aldiz merkaturatutako makina bat ez da derrigorrez makina berria izango; inportatu den bigarren eskuko makina izan daiteke).

→ ...makina lehenbiziko aldiz merkaturatu zen eguna:

EUROPAKO BATASUNEAN	97		1.1.95	1		1.1.97		
	95	1.1.95	1 6 2	1.1.95	1 6 7	1 6 4	1 6 7	
	93	1 6 6 1.1.93	1 7 95	1 6 5	1 6 3	4 2.2.92		
ESPANIAN	91		2		3 23.10.91			
	89	6 2.1.87	10.6.89	5		7		
	87		7					
		Makina Hauek izan ezik →	Eskorga autom. manuten.	Garabiak (zenbait mota)	Kableak eskalerak kakoak	Pertsonak Jasotzeko mak. (igogailuak ez)	ROPS Y FOPS	Segurt. osag.

Ikus daiteke hainbat alditan araudi bat edo bestea erabiltzeko aukera dagoela.

7. erreferentzia duen espazioa, ezar daitekeen araudi espezifikorik ez duten aldiei dagokie. Egun horietan merkaturatutako makinek bete behar dituzten eskakizunak, 1215/1997 EDren I. Eranskinean ezarritakoak dira. Eskakizun horiek, minimo absolutuak direnez, ezarriko dira ere, dagokien araudi espezifikotan ezarritakoak hain murriztaileak ez badira.

1. 11.27ko 1435/1992 Errege Dekretua, zeinen bidez, Estatu kideek makinaren inguruan dituzten legedien hurbiltetari buruzko 89/392/EEE Kontseiluaren Zuzentaraua ezartzeko xedapenak ematen baitira. 1.20ko 56/1995 Errege Dekretuak aldatu zuen (95.2.8ko BOE).
2. 89.5.26ko Ministro Agindua (89.6.9ko BOE), zeinen bidez, Jasogailu eta Mantenu Aparatuen Araudiaren

- Jarraibide Tekniko Osagarria (JTO MIE AEM-3), Mantenu-Eskorga Automotoreei buruzkoa, onesten baita.
3. 10.11ko 1513/1991 Errege Dekretua (91.10.22ko BOE), zeinen bidez kable, katea eta kakoen ziurtagiri eta markei buruzko eskakizunak ezartzen baitira.
 4. 1.31ko 71/1992 Errege Dekretua (92.2.6ko BOE), zeinen bidez, 2.27ko 245/1989 Errege Dekretua ezartzeko eremua zabaltzen baita, eta lanerako hainbat material eta tresneriaren teknika-espezifikazio berriak ezartzen baitira.
 5. 88.6.28ko Ministro-Agindua (88.7.7 eta 88.10.5eko BOE), zeinen bidez, Jasogailu eta Mantenu-Aparatuei buruzko Araudiaren Jarraibide Tekniko Osagarria (JTO MIE AEM-2), Lanetarako Dorre Garabi Desmuntagarrii buruzkoa, onesten baita, eta 11.18ko 2370/1996 Errege Dekretua (96.12.24ko BOE), zeinen bidez, Jasogailu eta Mantenu Aparatuei buruzko Araudiaren MIE AEM-4 Jarraibide Tekniko Osagarria, “erabilitako garabi mugikor autopropulstaei” buruzkoa, ezartzen baita.
 6. 5.26ko 1495/1986 Errege Dekretua (86.7.21eko BOE), zeinen bidez, Makinetako Segurtasunari buruzko Araudia onesten baita; 5.19ko 590/1989 Errege Dekretuak (89.6.3ko BOE) eta 5.24ko 830/1991 Errege Dekretuak (91.5.31ko BOE) aldatu dute eta Makinetako Segurtasunari buruzko Araudiaren Jarraibide Tekniko Osagarria (MSG-SM-1), erabilitako makinei, makinen elementuei edo sistema babesleei buruzkoa, onesten duen 91.4.8ko Aginduak (91.4.11ko BOE) osatu du.
 - 7.a. 7.18ko 1215/1997 Errege Dekretua (97.8.7ko BOE), zeinen bidez, langileek lan-ekipoak erabiltzeko segurtasun eta osasunerako gutxieneko xedapenak ezartzen baitira.
 - 7.b. 71.3.9ko Ministro-Agindua (71.3.16 eta 17 eta 71.4.6ko BOE), zeinen bidez, Laneko Segurtasun eta Garbitasunari buruzko Ordenantza Orokorra ezartzen baita.

II.2. EKIPOAK 1215/97 EDREN I. ERANSKINAREKIN BAT DATOZELA EGIAZTATZEKO FITXAK BETETZEA

Ekipo bakoitzerako, egiaztatzaileak egiaztapen-fitxa bat betetzen du, ondoren azaltzen den ereduzko fitxa-tipoari jarraiki.

Egiaztatzaileak aparatu bakoitzaren arriskuak aztertu behar ditu, eta analogiaz eta posible denean, “Eraikuntza-tresneria 1215/97 Errege Dekretura egokitzeko eskuliburua” izeneko argitalpenaren aholku-fitxak aipatuko ditu.

- Lehenengo orrialdean identifikazio-datuak agertzen dira.
- Bigarren eta hirugarren orrialdeetan ekipoak adostasunik duen edo ez azaldu behar da. Halaber, lan-ekipo bakoitzari ezarri beharreko 1215/97 E.D.ren artikuluko bakoitzerako hartu beharko liratekeen neurri osagarri posibleak azaldu behar dira.
- Laugarrenean, ordea, ekipoari eta egiaztapenaren sintesia-ri dagozkien oharpen osagarriak aipatzen dira.

Enpresariak edo bere ordezkariak fitxa hauek aztertu behar ditu, beren erantzukizuna konprometituta dagoelako.

ADOSTASUNA EGIAZTATZEKO FITXA	
MAKINAREN IDENTIFIKAZIOA	EGIAZTATZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA
Marka:	Egiaztatzailearen identifikazioa:
Modeloa:	
Serie zk.	Egiaztapenaren data:
Mota:	Egiaztatzailearen sinadura:
Urtea:	
Parke zk.	
Zerbitzuari jarritako data:	Enpresaren zigilua:
Beste erreferentzia batzuk:	

Egiaztatzaileak adostasuna egiaztatzeko fitxa bat betetzen du ekipo bakoitzerako:

- 1. orrialdean**, identifikazio-datuak azaltzen dira.
- eta 3. orrialdean**, 1215/97 Errege Dekretuaren 35 idatz-zatiak agertzen dira. Aipatu Dekretuaren testua eta azalpenak bat "Eraikuntza-tresneria 1215/97 Errege Dekretua egokitzeko eskuliburu" azaltzen dira.
- 4. orrialdean**, ekipoari eta egiaztapeneren sintesiari dagokion azalpen osagarriak daude.

Egiaztatzaileak arriskuen azterketa egin behar du atal bakoitzerako; eta, analogiaz eta posible denean, "Segurtasuna eraikuntza-tresneria egokitzeko eskuliburu" argitalpenan dauden alibio-fitxak aipatu behar ditu.

PROCEDURA HAU JAIRAKITUKO DA:

- Ados edo Ez ados zutabean adieraztea ekipoaren egoera, atal bakoitzari dagokionez.
- «Ezari beharrezko neurriak» zutaba betetuz, identifikatutako arriskuak murrizteko eta ezabatuko ezari beharrezko neurriak adieraziz, horrela ekipoa adostasunetik irtetuz.
- Beharrezkotzat jotzen diren joraz egotzi osagarriak jasotzea.

AZKENEAN egiaztapeneren sintesia egingo da.

Enpresariak edo bere ordezkariak fitxa hau aztertu behar du, bere erantzukizunaren konpromisoa duela.

1215/97 E.D. Tresna guzietarako sagapen teknikoak	Dagorrien elementuen erreferentziak	EGUAZTAPENEN EGINDAKO AZTERKETA Ezari beharrezko osurak
1. ATALA Ingeniariak		
2. ATALA Abiaraztea		
3. ATALA Geldialdi orokorra – Geldialdia larpoetan		
3. ATALA Larraldi-geldialdia		
4. ATALA Objektuen erorketak eta proiektzioak		
5. ATALA Gask, baporeak, likidoak edo haultak botatzeko arriak		
6. ATALA Sarbideak eta egoteko balindak		
7. ATALA Leherketak, hausturak		
8. ATALA Transmisio-elementu mugikorretara helitzeko bideak		
8. ATALA Lan-elementu mugikorretara helitzeko bideak		
9. ATALA Agitzapena		
10. ATALA Azal beroak edo oso hotzak		
11. ATALA Alamagariak		
12. ATALA Energia-turbin banaketa		
13. ATALA Seinalezapena eta ohartzapena		
14. ATALA Sutak		
15. ATALA Elikizitate-arriakua		
16. ATALA Zarak, ibizrazioak eta eratzidizkoak		
17. ATALA Likido korrosiboak edo erretzenak		

1215/97 E.D.	EGIAZTAPENEAN EGINDAKO AZTERKETA
Xedapen tekniko osagarriak lane-ekipo mugikortarako, automotoreak izan ala ez	Erari beharreko neurriak
1.a A.T.A.L.A	
Arriakuta lekuahaldetean	
1.b A.T.A.L.A	
Energiaresen transmisiorako elementuen blokeoa	
1.c A.T.A.L.A	
Energiaresen transmisiorako elementuen finkatzea	
1.d A.T.A.L.A	
Inault eta objektuak erortzeko arriakuta	
1.e A.T.A.L.A	
Ebakortu jasoerazileak	
1.f.1 A.T.A.L.A	
Ahaztatzea	
1.f.2. A.T.A.L.A	
Errailen gaineako ekipokak	
1.f.3 A.T.A.L.A	
Balaztatzea	
1.f.4 A.T.A.L.A	
Gidatutaren bospuma	
1.f.5 A.T.A.L.A	
Argiaren artifiziala	
1.f.6 A.T.A.L.A	
Segurtatea-sutesa	
1.f.7 A.T.A.L.A	
Urutirik gidatutako ekipokak (geladaldi automatikoak)	
1.f.8 A.T.A.L.A	
Urutirik gidatutako ekipokak (babesgailuak)	
1.g A.T.A.L.A	
Senzaliziapen akustikoa	
Xedapen tekniko osagarriak zama jasotzen ditzuten lan-ekipoetarako	EGIAZTAPENEAN EGINDAKO AZTERKETA
	Erari beharreko neurriak
2.a A.T.A.L.A	
Eginkortasuna	
2.b A.T.A.L.A	
Jasotzeko ahalmena	
2.c A.T.A.L.A	
Zama-mugimendukak	
2.d A.T.A.L.A	
Langileen jasotze eta elkarrekaritza	

[illegible]

II.3. ERAIKUNTZA-MAKINERIA LAN-EKIPOEI BURUZKO 1215/97 ED-REN I. ERANSKINAREKIN BAT DATORREN EGIAZTATZEKO GOMENDIO-FITXAK

Eraikuntza-tresneria lan-ekipoei buruzko 1215/97 ED-ren I. eranskinarekin bat datorren egiaztatzeko gomendio-fitxak, eredu gisa ematen dira eta, betetzeko, atal orokorrean azaltzen diren xedapenak kontutan hartu behar dira.

Fitxa hauek lagungarri dira adostasuna egiaztatzeko erari dagokionez, baina ezin dituzte xehetasunez garatu har daitezkeen neurri guztiak, makina-eredu bakoitzak izan ditzakeen egoera-aniztasuna oso zabala baita.

Edonola ere, fitxa hauek ez dituzte enpresak libre uzten bako modelo bakoitzaren arriskuak aztertzeak.

II.4. ERAIKUNTZA ARLOKO LAN-EKIPOTARAKO GOMENDIOAK EMATEN DITUZTEN FITXEN ZERRENDIA. FORMATU ASKEAN ERANSTEN DIRA.

1. Bide-bateatzailea
2. Hormigoi-ponpa mugikor eta gurpilduna
3. Urpeko ponpa elektrikoa
4. Bulldozerra
5. Dumper kamioia
6. Kamioi-garabia
7. Hormigoi-kamioia
8. Zamagailu beldarduna (Pala zamatzaile beldarduna)
9. Zamagailu gurpilduna (Pala zamatzaile gurpilduna)
10. Eskorga jasotzailea
11. Trinkogailu gurpilduna
12. Trinkogailu tandem (Trinkogailu arrabolduna)
13. Aire-konpresorea, finkoa
14. Gasoliozko aire-konpresorea
15. Material zeramikoaren ebakigailua
16. Zoladura-ebakigailua, errektuntzako-motoreduna
17. Kable-hondeamakina (zimendu berezietarako garabi mugigarria)
18. Hondeamakina beldarduna (Atzerarako hondeamakina beldarduna)
19. Hondeamakina gurpilduna (Atzerarako hondeamakina gurpilduna)
20. Zabaltzeko makina
21. Fresatzeko makina
22. 10 Kva.ko multzo elektrogenoa
23. Hormigoi-makina
24. Junboa
25. Kargagailua
26. Motonibelagailua
27. Mototraila
28. Motobrozel autopropulsatua (4.500 kg baino gutxiagoko tara duen Dunper trinko gurpilduna)

29. Leuntzeko makina, hormigoizkoa, oinezko operadorea-
rekin
30. Atzerakako kargagailu gurpilduna (Mistoa)
31. Erreten-makina
32. Zerra zirkular mugigarria
33. Zanga-makina

III. Atala

II. Eranskina

Lan-Ekipoen erabilpenari buruzko
xedapenak

Eranskin honen xedapenak ezarriko dira, aztertzen ari den lan-ekiporako arriskua da-
goenean.

III.1. LAN-EKIPOAK ERABILTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

1. INSTALAKUNTZA


Materiala lekuz aldatu ondoren, egiaztatu behar da jartzeak ez duela arriskugarri bihurtu.

Adibidez: oztopo batetik gertu erabiltzen den hondeamakina baten kasuan, langile bat arriskurik gabe pasatu ahal izango da makinaren kontrapisuen eta oztopoaren artean, dorretxoaren kokapena edonolakoa izanda ere.

Espazio librea behar bestekoa ez bada, lekuaren eraketa kontutan izanik, seinaleztapen eta/edo zaintza neurrien bidez, gune arriskutsuetara heltzeko bidea debekatze saiatu beharra dago.

Ekipoaren erabiltzaileentzat eta gainerako langileentzat arriskuak murrizteko moduan jarri, eratu eta erabiliko dira lan-ekipoak.

Muntaniz kontutan izango da, lan-ekipoen elementu mugigarrien eta bere inguruko elementu finko edo mugigarraren artean, behar besteko espazio libre egongo dela, eta ekipoak erabilitako edo sortutako energiak eta substantziak era seguruan hornitu edo kendu ahal direla.



2. HELDU ETA EGOTEKO MODUA

Lan-ekipoak erabili, doitu edo mantentzeko behar diren leku guztietara segurtasunez heldu eta bertan egon ahal izango dira langileak.

Plataformarik eta helbide iraunkorrik izan gabe, erabiltzen ari diren lan-ekipoetan, 2 metro baino gehiagoko altueratik erortzeko arriskua badago, baliabide laguntzaileak erabili beharko dira (aldamioak, plataformak, eskailerak...).

Adibideak: dorre-garabiak, zubi-garabiak.

3. ERABILTZEKO BALDINTZA BAIMENDUAK

Lan-ekipoak ez dira erabiliko egileak desegokitzat jotzen dituen moduan, eragiketetan edo baldintzetan. Ezin izango dira erabili ere, egin nahi den operaziorako babes-elementurik gabe.

Lan-ekipoak erabili ahal izango dira egileak aztertu ez dituen moduan, eragiketetan edo baldintzetan, aurretik horrek ekar ditzakeen arriskuen ebaluazioa egin bada, eta arriskuak ezabatu edo kontrolatzeko behar diren neurriak ezarri baldin badira bakarrik.

Atal honetan ezarritakoa kontutan hartu beharra dago, bereziki, ekipo laguntzaileak lan-ekipo bati gehitzen zaizkionean (zenbait kasutan, ekipo trukagarriak direnean).


Lan-ekipoen egokitzapenaren nozioak honako hau suposatzen du:

- Enpresariak bere erantzukizunetik egiten dituen aldaketak, lan-ekipo egokirik aurreikusten ez duen lan partikular bat egiteko; aldakuntza horien zabaltasunaren arabera, tresneria berriaren fabrikazioari buruzko 1435/95 E.D.ren menpe dagoen lan-ekipo berri baten egileztat hartu ahal izango da enpresaria.
- Langilearen ezaugarri pertsonalak aintzat hartzeko helburua duten egokitzapenak, esaterako, minusbaliatua denean.

Bigarren paragrafoa betetzeko, beharrezkoa da ebaluatzea ekipoak bere ingururako aurkez ditzakeen arriskuak; esaterako, ROPS kabina bat instalatzen uzten ez duen txasis bat izanik, ezin da motonibelagailu bat erabili, tokian makina iraultzeko arriskurik badago. Horregatik, ziurtatu behar da makinari ezar dakizkiokeen xedapen teknikoekin adostasuna dagoela.

4. ABIARAZTEKO BALDINTZAK

Babesteko dispositiboen desmuntaketa behar izan duen mantentzeko eragiketa baten ondoren lan-ekipo bat martxan jarri aurretik, froga bat egin behar da dispositibo horiek ongi jarri direla eta era egokian funtzionatzen dutela ziurtatzeko.



Adibidea: larrialdietan gelditzeko dispositibo batek ongi funtzionatzen duela egiaztatzea.

Lan-ekipo bat erabili aurretik egiaztatu behar da bere babesleak eta erabiltzeko baldintzak egokiak direla, eta konektatzeak edo abiarazteak ez dakarkiola inolako arriskurik hirugarrenei.

Lan-ekipoak erabiltzeari utziko zaio, narriadurak, matxurak edo bere funtzionamenduaren seguritatea arriskatzen duten bestelako zirkunstantziak badaude.

5. HEL DAITEZKEEN ELEMENTU ARRISKUTSUAK

Zurgintzarako makina batzuk, mahaiko zulagailu txikiak, nahasgailuak, eta abar dira. Horrelako kasuetan, bultzagailuak, pantailak, matxardak... bezalako elementu laguntzaileak aukeratu behar dira; eta banako babesleak erabiltzeaz gain, arropa egokiak jantzi behar dira.

Osorik babestu ezin daitezkeen elementu arriskutsuak eta heltzen errazak dituztelarik, lan-ekipoak erabiltzen direnean, arretaz jokatu behar da eta banako babesle egokiak erabili behar dira, arriskuak ahalik eta gehien murrizteko.

Bereziki, behar diren neurriak hartuko dira, bere kasuan ilerik, lanerako jantzirik edo langileak eraman dezakeen beste objekturik harrapa ez dadin.

6. HONDAKINAK KENTZEA


Lan-ekipo bat erabiltzen den bitartean, elementu arriskutsu batetik gertu dauden hondakinak garbitzea edo kentzea beharrezkoa denean, behar besteko seguritate distantzia bermatzen duten baliabide laguntzaile egokiez egin beharko da eragiketa.

Elementu arriskutsuak geldirik daudela garbiketa egitea posible ez bada, tresna laguntzaileak jarriko dira langileen esku.

7. EGONKORTASUNA

Lan-ekipoak ez erortzeko, iraultzeko edo kontrolik gabe mugitzeko moduan jarri eta erabili behar izango dira, langileen seguritatea arriskatu gabe.

Posible den kasu guztietan egilearen jarraibideen gidaliburuan ezarritakoa bete behar da. Posible ez bada, neurri gehigarriak aurreikusiko dira (hala nola, eusle osagarriak, gurpilen ibilgetzea, seguritate-abisuak...).



8. GEHIEGIZKO KARGAK ETA PRESIOAK

Lan-ekipoak ez dira egongo gehiegizko karga, presio, abiadura edo tentsioen menpe, erabiltzen dituen langileen seguritatea edo hirugarrenena arriskuan jartzen badute.

Lan-ekipoak beti erabili behar dira funtzionamendu-balio izendunen barruan.

Denbora luzean erabiltzearen ondorioz ahulduta dauden ekipotan, beharrezkoa izan daiteke ekipoiari eskatzen zaizkion prestazioak murriztea edo erretiratzea, segurtasunez erabil daitekeela bermatzea posible ez bada.

9. PROIEKZIO EDO ERRADIAZIO ARRISKUTSUAK

Lan-ekipo bat erabiltzeak proiektzio edo erradiazio arriskutsuak sor ditzakeenean, ohiko funtzionamenduan sortzen bada, zein aurreikus daitekeen anomaliarik badago, prebentzio- edo babes-neurri egokiak ezarri beharko dira, erabiltzen duten langileen seguritatea edo inguruan daudenena bermatzeko.

Posible izatekotan, soldadura, esmerilatua eta antzeko eragiketak isolatuko dira.

Gainera, banako babes-ekipoak (betaurrekoak, pantailak...) eta lan-jantzi egokiak erabiliko dira.

Ekipo bereziak (laser-dispositiboak edo iturri erradiaktiboak dituztenak) erabiltzen direnean, indarrean dagoen araudi espezifikoak izan behar da kontutuan.

10. ESKUZ GIDATUTAKO EKIPOAK

Baldintza horrek, batez ere, transpaletetarako, eskorgetarako e.a. balio du, esekita dauden agintetarikoko garabiak barne.

Seguritate-distantziak errespetatu behar dira eta langileen gainetik ez da kargarik pasatuko. Eragiketak trebatutako langileekin egingo dira eta, beharrezkoa izatekotan, maniobrarako gida baten laguntzaz.



Eskuz eramandako edo gidatutako ekipoa, beren mugimendua inguruan dauden langileentzat arriskugarria izan ahal bada, behar den arretaz erabiliko dira eta, kasu guztietan, behar besteko seguritate distantzia errespetatuko da. Horretarako, maneiatzen dituzten langileek kontrol-baldintza eta ikuspen egokiak izango beharko dituzte.

11. GIRO-BALDINTZA ARRISKUTSUAK

Gogoratu behar da enpresariak egin beharreko lanari egokitutako lan-ekipoak eman behar dituela eta, logikoa denez, giro-baldintza arriskugarriak kontutan izan behar dituela. Beharrezkoa bada, erabiltzeko argibideak eta seinaleztapen egokia emango dira.

Giro berezietan (hala nola, bustita dauden edo eroankortasun altua duten aretoetan, sute-arrisku handia duten tokietan, atmosfera lehergarrietan edo giro korrosiboetan), ez dira erabiliko lan-giro horretan langileen seguritatearako arriskugarriak diren lan-ekipoak.

12. TXIMISTAK

Atal honetan eman daitezkeen erabiltzeko jarraibide bakarra, lanak berehala etetea da, ekaitzak hurbiltzen ari badira; gainera, ekipoak tximisten aurka babesteko neurri egokiak ezarri behar dira.

Erabiltzen diren bitartean tximista batek harrapa ditzakeen lan-ekipoek, dispositibo edo tresna egokien bidez babestuta egon beharko dute, tximisten ondorioen aurrean.

13. MUNTAIA ETA DESMUNTAKETA

Adibideak:

- Egiaztapena eta froga, pala hidrauliko baten beso eta gezia muntatu ondoren (egokitzen ari buruzko azterketa, kontserbazio-egoera...), egilearen argibideei jarraiki eta, jarraibiderik ez badago, egiteko modua zehazten duen kontsignari jarraiki.
- Dorre-garabi baten muntai eta desmuntaketa.

Lan-ekipoen muntai eta desmuntaketa modu seguruan egin beharko da; horretarako, eta bereziki, egilearen argibideak -daudenean- beteko dira.


14. MANTENTZEA ETA KONPONTZEA

Langileen seguritateko arriskuak izatekotan, lan-ekipoak mantendu, doitu, desblokeatu, berraztertu edo konpontzeko eragiketak egingo dira, ekipoa geldiarazi edo deskonektatu ondoren, hondakin-energia arriskutsurik ez dagoela egiaztatu ondoren, eta operazioa egiten den bitartean ez abiarazteko edo ustekabeen ez konektatzeko behar diren neurriak hartu ondoren.

Geldiaraztea edo deskonektatzea posible ez denean, operazio horiek seguritatez edo gune arriskutsuetatik kanpo egiteko behar diren neurriak hartuko dira.

Lan-ekipoei ezar dakizkieken baldintza teknikoak aztertzen dituen sekzioaren 12. puntua, energia-iturrien banaketari buruzkoa, osatzen du atal honek.

Sistema hauek ezin badira erabili, arrisku minimizatua duten funtzionamendu-erak ezarriko dira (abiadura txikia, agente sentikorrak...). Beharrezkoa izan daiteke lan-prozedurak ezartzea eta langile espezializatuak izatea arrisku-aukerak murrizteko.



15. MANTENTZE-EGUNKARIA

Lan-ekipo batek mantentze-egunkaria jarraitu behar duenean, eguneratuta egongo da.

Araudi espezifikoak mantentze-egunkaria exijitzeaz aparte, prebentzio-bide egokia da mantentze-eskuhartzeen erregistroa izatea, arriskuen ebaluaketa egin ondoren, arriskugarritasun handia duten ekipoetarako.

16. MARTXAN EZ DAUDEN EKIPOAK

Zerbitzutik erretiratzen diren lan-ekipoak babes-dispositiboekin mantendu beharko dira, edo erabiltzea ezinezko bihurtzeko behar diren neurri guztiak hartuko dira. Bestela, ekipo horiek beren babes-dispositiboekin mantendu beharko dira.

Ekipo bat fisikoki existitzen den bitartean, bi aukera besterik ez dago: funtzionatzeko prest egotea, behar diren babesle guztiekin, edo berriz martxan ez jartzeko neurriak ezartzea; azken horrek, ekipoaren atal garrantzitsuak deuseztatzea suposatzen du.

Ondoren erabiltzeko hirugarrenei uzten bazaie, lehenengo aukera bakarrik izango da posible.

17. ESKUZKO TRESNAK

Ez da kolperik emango giltzekin, ez da palankan jasoko bihurkin batez, ez da zizel batez ebakiko, ez da kirten osagarririk ezarriko...

Tresnak poltsa batean edo erreminta-kaxa batean eramango dira, eta era egokian mantenduko dira.

